

uk

64. zenbakia / 2004 ekainak 27



euskaraz empápale blai de euskera



berba egin, xuxurlatu,
abestu egiozu
háblale, susúrrale,
cántale...

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Gorpuzti eguna. Asier Mentxaka.
- 6. PLAZA. Koarta-tenporak, Peio Zabala. Leihatila, Josu Esnaola.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Plentziako portua.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- 23. AGENDA.

SAKONEAN

- 24. ALBUMA. Bustoak eskualdean. Asier Mentxaka.
- 26. BERBETAN. Laura Mintegi. Unai Brea.
- 28. ARGAZKIA. Uriolak Erromon. Gonzalo M. Azumendi.
- 32. ERREPORTAJEA. Metroa, gure bizkarrezurra. U. B.
- 34. FOTOGRAFIA. San Nikolas ikastolaren 40. urteurrena.

KULTURA ETA AISIA

- 38. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Getxoko Gaurik laburrena.
- 39. MUSIKA. Getxoko Jazzaldia. Diskoen erreseinak.
- 40. LIBURUAK. Esti Ezkerren zutabea eta Kirmen Uribe.
- 41. KOMUNIKAZIOA. Denbora-pasetarako Luma aldizkaria.
- 42. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
- 43. ELKARRIZKETA. Esait-eko Ritxi Mendiguren. Unai Brea.

EUSKARAZ

- 44. AKABUKO PUNTE. Maria Begoña Izagirre, Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
- 46. URIBERTSOAN. ALBEKumeak eta gainera Beñat Vidalen bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.

AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escudoren errejeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan pintxo bat? Esaterako Ixasbide tabernan.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Areetako Acción Católica futbol taldea, 1947.
- 54. AITORMENAK. Africa Baeta. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka (Metroa)



26 Laura Mintegi

43 Ritxi Mendiguren

Berbetan

Sortu berri den Euskal PEN Klubaren presidentea da aspaldian algortaratutaako idazle nafarra. Beragaz egon da Unai Brea.



32 San Nikolas ikastola

21 Lemoizko alkatea

24 Albuma

54 Africa Baeta



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / aldizkaria@euskalnet / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TSTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenabea, Jisti Zabala, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarna Lepoan Euskaraz Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarna Lepoan Euskaraz Elkartearen dirulaguntza jasotzen du**
Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta

**TOPAGUNEA**

**GETXOKO UDALA**
Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

**Leioako Udala**
Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskaraz Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

**BERANGOKO Udala**
Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du

**Erandioko Udala**
Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

**Erandioko Berbots Euskaraz Elkartearen laguntza jasotzen du**

**Bizkaiko Foru Aldundia**
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

**Fundación Grupo Eroski**
KONSUMITZAILARENENTZAT

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du**

UK
Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!
BBK 2095 0121 10 91 02483676
Boluntzarreta

gugeu

Denbora

UK aldizkariko irakurle arduratsuak honezkero ondo jakingo du zer den denbora, izan ere, aldizkari honetako zazpigarren orrialdeko “Lehen-Orain” atalean Hiztegi Entziklopedikoak dakarren denboraren definizioa argitaratzen dugu zenbaki guztietan. Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea. Gainera, egia borobila da-eta, “Iraganez doa denbora beti” idazten dugu atal horretan. Eta egia da, San Juan suak amata berri diren honetan beste uda batean sartu gara atzera. Beharbada nostalgiko xamarak gara, eta batzuentzat uda hasi bada ere, gure erredakzioan dagoeneko egunak laburtzen hasi direla bota du inork, eta negua hurbilago dagoela. Izan ere, iraganez doa denbora beti. Ustekabean, urteko egunik luzeenek ihes egin digutela sentitu dugu –eguneroko zeregin, beharrak eta obligazioak–, eta larreak lehortzen, loreak sikatzen eta egunak laburratzen joango direla aurrerantzean. Naturatik urrun bizi izatearen ondorioa izango da gogora datozkigun pentsamendu malenkoliatsu hauen sorburua. Auskalo!

Horrela da, denbora iraganez doa beti eta bat-batean San Nikolas ikastolak 40 urte ditu. Han ikasitakoak gara aldizkari honetako kide asko eta guretzat ikastola berria zen San Nikolas han ibili ginenean. Orain, gu bezala, helzarora heldu da. UK zenbaki honetan 40. urteurrena ospatzeko egin zen jaia erakusten duten hainbat irudi aurkituko dituzu.

Denbora berba –ez ei da oso zuzena– eguraldi hitzaren sinonimo gisa erabiltzen dugu sarritan. Eguraldi kontuetan aditua den Peio Zabala jakintsuari uda honetaz tenporek zer esan dioten itaundu diogu. Eta eguraldi ona datorkigula esan ei diote (ikus 6. orrialdea).

Denbora iraganez doa beti, udan denbora ona edukiko dugu, denbora hobeak zuretzat irakurle! 4

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxe: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero erosi > berria



[irudia]

Gorpuuzti eguna / Aspaldi-aspalditik egiten den moduan, ekainaren 13an Gorpuuzti eguneko ospakizunetara alkartu ziren Algortarrak, eta batez ere, Portu Zaharreko auzotarrak: meza ederra 11etan, Biotz Alai abesbatzak lagunduta, eta argazkian ageri den legez, portuko plazatxoko platanondoen gerizpeak babestuta (Eskerrak! Eguzkiak sendo jotzen zuen eta!). Arima elikatu ostean, gorputza elikatzeke sasoia heldu zen: sardinada galanta, errioxako *mama goxuagaz* lagunduta. Gorpuuzti eguneko ohitura ondo bete zen beste behin. / Argazkia: Asier Mentxaka

Leihatila

> Josu Esnaola

Egia erdiak

Inoiz ez dut gogoko izan letra larriz idatzitako politika, euren nahi ezkutuak erdiesteko egia erdien bitartez herritarrak erabiltzeko artea dela irizten baitiot. Eta herritarrak erabili inolako lotsarik gabe erabiltzen gaituzte. Pasa berri diren Europako hauteskunde hauetan eta hauteskunde biharamunean ere halakorik ikusi ahal izan dugu.

Esaterako, alderdi demokratiko orbangabe batzuku behin eta berriro agertu dira, hitzez behintzat, aukera politiko bat legez kanpo uztearen aurka, baina gero ez dute inolako lotsarik izan hori ahalbidetu duen alderdien legearen alde bozkatu zuen alderdi batekin koalizioa osatzeko edota legez kanpoko aukera horrek jasotako bozak kontuan izan gabe euren alderdia Erkidegoan laugarren indarra eta Nafarroan hirugarrena dela esateko.

Saso batean kontatzen zena ekarri didate gogora: Kennedyk eta Kruchevk nagusitasuna beren arteko lasterketa baten bidez erabakitzea pentsatu zuten. Gazteagoa izanda, Kennedyk irabazi zuen eta hurrengo eguneko Pravda egunkarian honako hau agertu omen zen izenburuan: Kruchev bigarren Kennedy azkenaurreko.

Herritarrok, baina, nazkatzen ari gara. Abstentzioa nagusi. 4

IRITZIA

Peio Zabala adituari hasi den udari begira tenporek iragarri duten eguraldiaren berri emateko eskatu diogu

Koarta-tenporak

Udako koarta-tenporen zain egon da jende asko ta asko. Ekainaren 2an, 4an eta 5ean izan dira egun seinatuak. Zergatik hor? Orain dala mende asko jada, Pazko sasoa amaitu ostean, emoten zituelako Elizak otoitzerako egun dontsu hauek. Pentekoste amaitu eta Hirutasun igandea bitartean emon ei dira. Hiru egun hauek dirateke udako 3 iretargi-aldien barri emoten dakitenak.

Ekainaren 17an da iretargi barria. Beraz, ekainaren 17tik uztaileko 17ra izango den iretargi aldiaren eguraldiaren bidea, ekainaren 2an izaniko eguaztenak markatzen dau: itsasoko haizea markau eban. Kostaldeko jendeak badaki itsas aldeko ekarria umeldura eta freskoa izan ei dala. Euritarako gogo askorik be ez dau agertu aspaldion: sikutik eta freskotik ibiliko dela emoten dau.

Ekainaren 4-5 bi egunok, aldiz, apartekoak izen ziren: zeru garbi gardenak;

goizetik frexko, ihintza eta guzti; eguerdi aldean, eguzkia goian, larregi berotu barik, haize ahula ekialdetik zetorrela, herri haizeagaz... dotore bi egunok!

Noiz arte seinatzen dabe bi egun eder horiek? Barikua izan zen 4a: uztaileko 17tik abuztuko 16ra doan ilargialdia seinatzen duena. Zapatua 5.a: bezperakoaren bikia, abuztuko 16tik iraileko 14raino apuntatzen duena. Ez dauka okerragorik! Udaren bihotza, udamin apur bat gorabehera, dotorea joango dela esan leike.

Beti ere, ez ahaztu, ilargialdi bakoitzak 4 koska dituela: ilberri, ilgora, ilbete ta ilbehera... lauetatik bat, ez jakin zein, aurkakoa aterako zaio neurri batean. Bi horiek kontuan harturik ere, uda gehiena egun atsegin ta argiekikoa espero da. Lastima: euri gitxitxo egingo dauala...! 4

Pello Zabala (www.ehkme.com)

photoshop > Aixerrata mugitzeko pilak

Irudiak eta manipulazioa: Gorka Vázquez

[lehen]



[orain]

**Iraganez doa denbora* beti / PLENTZIAKO PORTUA**

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

gure posta elektronikoa
berria

uk@aldizkaria.biz



Argazkiotan, Sahararen lagunak kamioia betetzen

elkartasuna > Saharara bidean kamioi bete elkartasun

Tinduf-eko errefuxiatu kanpamenduak helmuga dauzkan kamioi bat abiatu zen hil hasieran Leioatik, laguntza eta elkartasunez beteta. Azken hilabete bietan zehar, apiril eta maiatz bitartean, Sahararen aldeko eskualdeko bi elkarteek, Getxoko Aftal eta Leioako Fath elkarteek, elikagai bilketa bat eraman dute aurrera errefuxiatu saharaiuei laguntza bidaltzeko asmoz. Herritarrek helarazitako elikagaiak Saharara bidaltzeko prestatzen amaitu zutenean, 23,5 tona zenbatu zituzten: elikagai ez galkorrak, jertseak, aroztegiatarako tresnak, esku-ohak, Ibilaldiako txapelak, ezinduen zentroentzako laguntzak etab. batu dituzte; 2.500 kilo arroz, 5.000 kilo olio, 2.500 kilo dilista, 2.000 kilo inguru pasta... Uribe Kostako herritarrek Saharako errefuxiatuei helduarazi gura dizkiegun 23 tona elkartasun, Uribe Kostako hondartza eta paisaia berdeetatik basamortu gogor eta berora kamioi batean bidali gura den *freskotasun* apurra. ^m

moda gaztea opariak

IRATI

Torre 2, ALGORTA
T.: 94 491 12 71

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

T: 430 53

HIRURAK

Sarikobaso 15

OSAE IDE? HORTZ? KLINTIKA
Arantza Ezebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuinean ALGORTA 94 94 430 76

begizorrotz > Algortako sex-shopa itxita



Orain dela hilabete bat itxi zituen atea Algortako sex-shopak

Gai erotikoak preso ageri dira argazkian, giltzapean. 2003ko maiatzean zabaldu zituen atea "Bode's Sex Shop"-ek Algortan, eta urte pasatxo igaro denean pertxiana jaitsi du egoera beroetarako gaiak saltzen dituen dendak. "*Sexuarekin zerikusia daukan guztiak diru asko ematen du*" zioen Uribe Kostako sex shop bakarreko jabeak orain dela urte beteko UKn. Urtea igarota ez dakigu berdin pentsatzen jarraitzen duen. Zuzenak zein okerrak, guk geure hipotesiak osatu ditugu: baliteke dirutza ederra egin eta *Curro* delakoagaz munduan zehar galdu izana; beharbada, Euskal Herrian gutxi ligatzen dela dioen esaeraren albotik dendak emaitza txarrak izatea, hau da, gutxi ligatzen bada... Edo agian, barruko goxamenak kanporatzeko koldar jarraitzen dugula. Noizko sexu adierazpen askatasuna? ^m

kale izendegia > Andrés Cortina



Algortako San Martin kalearen eta San Nikolas plazaren artean kokatzen da atalxo honetara oraingoan dakargun Andrés Cortina izeneko kalea; hain zuzen ere, San Nikolas eliza hortxe bertan dago. Gure jakin-min asegaitzak Andrés Cortina nor zen eta kale bat bere izenagaz edukitzeko zer egin zuen ikertzera bultzatu gaitu. Algortan jaio zen, María del Carmen Pinaga eta Andrés Cortina zituen gurasoak, eta Merkantzia-Ontziteriako kapitaina izatera ailegatu zen. 1841eko urriaren 18an María Rosa Rogelia Cortina eta Aldekoagaz "ahalordez" ezkondu zen, Carlos M^a Zabala hirukoiztarrak *Historia de Getxo* liburuan idatzi zuen arabera. Getxoko elizaurreari eman zion laguntzaren artean, San Martin kalean zegoen "Neskentzako Eskola" Fundazioa aipatu behar dugu nahitaez. ^m

arrantzale taberna

Pintxoak
Errazioak
Ogitarteko beroak

Portu Zaharra ALGORTA
94 460 12 44

etorri eta ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIZOL moda



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

Herritarrentzat bulego berria

Herritarren Arretarako Bulego berriak ateak zabaldu ditu **Algortan** eta hiru dira dagoeneko Getxoko bulegoak; egoitza berrian ipini dituzte **KIUBen bulegoa** eta udako **Turismoko Gune** bat ere

Getxoko udalak Herritarren Arretarako hirugarren bulegoa zabaldu du, azkena Algortako Zabala kalean. KIUBen bulegoa eta Turismoko Informaziorako beste gune bat ere jarri dute Herritarren Arretarako Bulego berriaren egoitzan. Orain dela 3 urte erosi zuen egoitza hau udalak ia 285.500 euroan, eta bulegoaren egokitze lanek 115.340 euro balio izan dute.

Zabalik dago Getxoko hirugarren Herritarren Arretarako Bulegoa (HAB). Algortako Juan Bautista Zabala kalean dauka bulego berriak egoitza, eta 100 bat metro koadroko bulegoa da. Herritarren Arretarako Bulegoetan errolda agiriak, hauteskunde garaian erreklamazio edo kexak, agiriaren erregistroa (obrei dagozkien baimenak salbu), ordainagiriaren bikoizketa, bekei buruzko informazioa, euskararen inguruko diru-laguntzen argibideak eta abar egin eta eska daitezke.

Getxoko udalak 2001an erosi zuen Zabala kaleko HABrako egoitza 285.480 euroren truke. Egoitza honek hainbat konponketa eta egokitzen behar zituen, besteak beste irisgarritasun neurri batzuk bete, eta hori dela eta atzeratu egin da bulego berria irekitzeko eguna. Egokitze lanek 115.342 euroko kostua izan dute.

Turismo Bulegoa eta KIUB HAB berriaz gain, beste bulego bi daude Getxon: bata, Erromoko Kultur Etxean, eta bestea, Benturillena kalean. Bestalde, Udal-



Herritarren Arretarako Algortako Bulego berria Juan Bautista Zabala kalean dago

tzaingoaren bulegoetan ere badago Herritarren Arretarako Gune bat.

Zabalako HAB berriaren egoitzan Turismo Informaziorako Gunea (TIG) eta orain arte Tangora Etxean zegoen Kontsumitzaileen Informaziorako Udako Bulegoa (KIUB) jarri dute.

«Agiriaren erregistroa, diru-laguntzen informazioa, ordainagiriaren bikoizketa...»

Zortzigarren udaldiz zabalduko da Turismo Informaziorako Gune bat, aurretik Zabalan, Ereaga hondartzako Turismo Informaziorako Bulegoaren menpe egongo dena. Uda partean bakarrik egongo da zabalik gune hau. irailaren 15era arte.

Amaitzeko, Turismo Bulegoak iazko udan ia 2.400 pertsonari eskaini zien arreta. TIGek batez ere Getxoko, eta oro har, Euskal Herriko eskaintza turistikoaren gaineko informazioa eskainiko du. Turismo Bulegoak, ostera, informazio horrez gain, atzerriko herrialdeen turismoaren inguruko argibideak ere emango ditu. m

JAKINGARRI

- **HABak Getxon:** Erromoko Kultur Etxean, Benturillena kalean eta Juan Bautista Zabala kalean (Algorta)
- **Ordutegia:** irailaren 15era arte 08:00-13:30. Ordutik aurrera, 08:00-14:00
- **Herritarren Arretarako Gunea:** Udaltzaingoaren bulegoetan
- **Telefono zenbakia:** 902 115 500

Getxoko AZ enpresa

Herritarren zerbitzura **14 urte daramatza** **Antolaketa eta Zerbitzuak** enpresak



Nikola Amezaga eta Endika Etxebarria AZko buruak

Getxoko AZ enpresak 1990eko amaieran ekin zion bideari, Nikola Amezaga eta Endika Etxebarriaren zuzendaritzapean. Amezagak azaldu digun legez, *“Getxon mudantza, antolaketa eta modu horretako zerbitzuak eskaintzen zituen enpresarik ez zegoela konturatu ginen eta horrela sortu zen AZ”*. Ordutik 14 urte pasa dira eta AZko merkatuan finkatuta daudela esan daiteke, *“orain kalitatezko zerbitzua eskaintzean oinarritzen gara, urte asko daramagu eta kalitatea eskaini dezakegu”*, diosku Amezagak. AZ enpresak, hasieran, Getxon bakarrik ematen zuen zerbitzua. Gaur egun Uribe Kosta osora zabaldu, eta Bilbo

Handira heltzen da. Horrez gain, noizean behin Europa zehar ere egin dute lan.

“Gauza danatarako mutilak”

Mudantzak, materiala garraiatzeko zerbitzua, montajeak (batzuetan), altzari eta tras-telekuen garbiketa, mahai eta aulkien alokairua... *“gauza danatarako mutilak”*, horrela definitu du Amezagak euren jarduna. 20-25 langileko enpresa da udara aldean (lan gehien dagoen urtaroa), eta Amezagak dioskunez: *“beti saiatzen gara langile moduan getxoztarrak aukeratzeko”*. m

Harremanetarako: 94 491 17 44

BBK SOLIDARIOAGAZ HITZARMENA SINATUTA

Getxoko udalak 2005era arteko lankidetzaz hitzarmena sinatuko du BBK Solidarioa Fundazioagaz, kutxaren Banku Solidarioa delako ekimenean parte hartzeko. BBKren ekimen honek, finantziario sistema berezi batzuen bidez, bazterketa egoeran jausteko arriskuan dauden pertsonak bergizarteratzeko eta lan esparruan sartzeko laguntzak eskainiko ditu. Udal getxoztarrak laguntzoz onuradunak izan daitezkeenak zehazten laguntzeko ardurua hartuko du.

UDAL ZABORTEGIA 2005ean ITXIKO DA

Iñaki Zarraoa Getxoko alkateak adierazi duenez, *“Getxoko udal zabortegia urte amaierarako edo 2005eko hasierarako itxita egongo da”*. Zabortegi alboan bi Tranfer instalazio eraikitzen dabilta, eta bertan zaborra txiki-txiki egingo da, gero beste leku batera garraiatzeko. Oraindik ez dago zehaztuta txikitutako zaborra nora eramango den, erraustegi batera ala beste zabortegi batera. Hirugarren instalazio bat ere sortu daiteke gerora, eskualdeko beste herriek erabili ahal izateko. Hala ere, hirugarren planta egiteko egitasmoa oraindik ezin da egiaztatzen.

PUNTA GALEA ELKARTEAREN EKITALDI GEHIAGORIK EZ

Punta Galea Txirindulari taldeak aurreikusita zeuzkan lasterketa eta ekintzak bertan behera utzi ditu, guztira 5 lasterketa. Proben segurtasuna eta bete beharreko araudia bermatzeko segurtasun-poliza bat ordaintzeko gai ez direla uste dutelako hartu dute erabaki hori. Izan ere, araudia eta segurtasun kontuakaz lotuta, 2000. urtean Urdulizko XV. Andra Mari sari nagusian gertaturiko istripu baten erantzule zibiltzat jo du epai batek Punta Galea Txirindulari taldea, eta 37.000 euroko isuna ordaintzera behartu du. Honen ondorioz, bertan behera geratu da, besteak beste, uztailearen 31n Getxon egiten den San Inazioetako lasterketa.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurritan.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

Aurten bandera urdirnik ez

Ez da bandera urdirnik ikusiko aurten Getxoko hondartzetan. Iñaki Zarraroa alkateak azaldu duen legez, "hori-riek jasotzeko ez garelako aurkeztu". Hiru dira ez aurkezteko arrazoiak: "Aldundia bandera urdinen antzeko beste proiektu batean dabil lanean, ISO kalitatearena, eta horretara aurkeztuko gara etorkizunean; gainera, urdinek aurreko urteko uren kalitatea aztertzen dutelako eta badakigu iaz gure urak zein egoeran zeuden; eta azkenik, bandera urdinak ematen dituen enpresagaz ez gaudelako oso konforme", adierazi du Zarraroak. m



GETXOKO 6 ESKOLA AGENDA XXI BARRUAN

Getxoko Agenda XXI ekimenaren barruan dagoen Eskolen Agenda XXI egitasmoa aurrera eroateko erronka onartu dute sei ikastetxeek: San Nikolas, Gobela, Larrañazubi, Juan Bautista Zabala, Aixerrota III eta Julio Caro Barojak, hain zuzen. Ikastetxeek eta udalaz gain, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Hezkuntza sailek ere parte hartzen dute. Helburua, ume eta gazteek ingurumenaren eta garapen orekatuaren alde lan egitea.



Paola Dapena > Uribe Kosta elkarteko Aisialdi Zerbitzuko arduraduna

"Oporretan joateko irrikitan daude, eta eurekaz joateko bolondres bila gabiltza"



Argazkian, Paola Dapena. Harremanetarako: 94 463 24 52 / www.uribecosta.org

Uribe Kosta, adimen urriko pertsonak lanean diharduen irabaziasmo bako elkarte da. Adimen urriko senitartekoak dauzkaten familiek sortu zuten 1976an, eta 1981an elkarte moduan eratu zen. Uribe Kosta osoan egiten du lan, eta adimen urriko 150 bat pertsonak jasotzen dituzte euren zerbitzuak. Paola Dapena da elkarteko aisialdi zerbitzuko arduraduna.

—Zer jarduera eskaintzen duzue.

—Adinez nagusiak diren adimen urriko pertsonak eduki ditzateketen beharizanen esparruetara heltzen saitzen gara. Alde batetik lan arloa daukagu, eta horren barruan daude lan zentruak eta eguneko zentruak. Lan zentru bi dauzkagu, bata Urdulizen eta bestea Leioan, eta bertan pertsona hauek egiten dute lan, tailer batzuk dira, ekoizpen maila mugatua dutenak, lan zentru bereziak, eta horrela ikasteko garaia amaituztat jotzen denean zentru haue-tan lan egiteko aukera dute. Bestalde, eguneko hiru zentru dauzkagu Andra Marin, Gorliz, Leioan eta Negurin. Bestalde, ego-kitutako hiru etxebizitza dauzkagu Getxon. Eta urtean zehar ekitaldi kulturalak eta irteerak prestatzen ditugu. Opor garaian udalekuak eta udaleku irekiak antolatzen ditugu,

eta kirol talderen bat ere badaukagu, adibidez futbolekoa, eurek egindako egunkaria daukagu..

—Udarako bolondres bila zabilzate, ezta?

—Abuztuan adibidez, udalekuak prestatu ditugu, Gipuzkoa, Katalunia, Errioxa, Burgos eta Katabrian. Udaleku irekiak eta aisialdirako kluba ere egingo dugu. Horretarako laguntza behar dugu, eurak oporretan joateko irrikitan daude, edo irteerak egin gura dituzte. Eta eurekaz joateko bolondres bila gabiltza.

—Aldatu al da 20 urtean egoera?

—Bai, hobera egin du. Zerbitzu gehiago dauzkagu orain, eta lan esparru guztietara helt-

«Orain, adibidez, lan zentruak dauzkate, hori orain dela 20 urte pentsaezina zen.»

zen saiatzen gara. Hasieran haurtzaindegi baten bakarrik geneukan zerbitzua; gaur adimen urriko pertsonak gizartearen barneratutako zerbitzuak daukate, eskolara doaz beste haur guztiak legez, lan zentruen aukera daukate... hori orain dela 20 urte pentsaezina zen. Lehen, agian, etxean geratzen ziren eurentzako ekintza edota ekitaldirik ez zegoelako, eta orain kalera irteten dira eta ekintzetan parte hartzen dute. Eta gizarteak ez ditu hain begi arraroez begiratzen. m

Bertso Jaialdi Mundiala uztailaren 7an puntako bertsolariak



Gogoratu ekainaren 25ean ere "Balkoitik balkoira" izango dela Portu Zaharrean

Bertso Jaialdi Mundiala-ren ueña heldu da, eta urtero legez uztailaren hasiera aukeratu dute Algortako Bertsolari Eskolak eta Euskara Zerbitzuak bertsolariak oholtza gainera igotzeko. Uztailaren 7a, eguaztena, hautatu dute aurten, eta 6 bertsolarik, zein baino zein ezagunago, jardungo dute bertsotan: Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Sustrai Kolina.

Bertsoaldia Biotz Alai plazan (Algortan) lekutuko da, gaueko 22:00etan eta sarrera

doakoa da. Sei bertsolarion irudimena pizten, irribarra eragiten eta bertsotarako gaiak jartzen Aitzol de Kastro edukiko dugu.

Balkoitik balkoira

Bestalde, gogora ekarri Balkoitik Balkoira saioa ere oraintsu izango dela, ekainaren 25ean hain zuzen. Algortako Portu Zaharreko Etxetxu plazan edukiko ditugu gaueko 22:00etatik aurrera Amets Arzallus eta Fredi Paia balkoi batetik bestera bertsotan. m

KONTZERTU AKUSTIKOAK HERRIKO KALEETAN EKAIN, UZTAIL ETA ABUZTUAN ZEHAR

Ekain amaieran, uztailean eta abuztuan zehar kontzertu akustikoak goxatu ahal izango dute kaletarrek. Erromoko oinezkoen gunean, Satistegi plazan eta San Nikolas plazan egingo dira kontzertuok. Ordu biko jardunean eskainiko dira kontzertu hauek, Sonikete Musika elkartearen eskutik, arratsaldeko 20:00etatik 22:00etara. Erromon ekainaren 29an, uztailaren 6, 13 eta 20an, eta abuztuaren 3, 10, 11 eta 17an izango da musika akustikoa entzugai. Satistegi plazan uztailaren 7, 14 eta 21an, eta abuztuaren 4 eta 25ean egingo dira. San Nikolas plazan, berriz, uztailaren 8, 15 eta 22an, eta abuztuaren 5 eta 29an.

PORTU ZAHARREKO JAIETARAKO KARTEL LEHIAKETA ABIAN DA

Algortako Portu Zaharreko jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketa martxan jarri du Jai Batzordeak. Ekain amaiera arte aurkeztu ahal izango dira lanak Villamonteko Kultur Etxean. Kartelek 58x45 zm-ko (edo alderatiz) neurria eduki beharko dute, eta hurrengo testua erakutsi: "Portu Zaharreko Jaiak 2004 - Abuztuak 11-15". Kartel irabazleak 350 euroko saria jasoko du, eta horregaz batera beste 200 euro banatuko dira bestalako sarietan. Gero, 8 kartelez osatutako erakusketa egingo da Portu Zaharra tabernan. Sari banaketa uztailaren 16an arratsaldeko 20:00etan egingo da Portu Zaharreko plazan. **T. : 94 460 94 46**



RENAULT ocasión

IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

"0 Km" dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan



RENAULT
BILBO BERRI
Bizkerre/k.z/g - ALGORTA
Tel.: 94 430 68 81
Jon Arróspide, 20 - DEUSTO
Tel.: 94 448 39 00

Koldo Tellitu > Betiko ikastolako lehendakaria

“Hemendik bi urtera ikastolaren 40. urteurrena ospatuko dugu”

Ondo baino hobeto ezagutzen du Koldo Tellituk ikastolen mundua. Gas-teizko ikastolan ikasia eta Leioako Betiko Ikastolako lehendakari dugu azken 7 urteotan. Partaideko lehendakari postua ere betetzen duen honek ikastolaren eredu euskalduna aldarrikatzen du, *“baina ez da euskaraz ikastea soilik, horregaz batera euskal kultura, euskal gizartea, ... euskalduntasuna bere osotasunean norberagana ekartzea da”*.

Joan den hilabetean Sopelanako Ander Deuna Ikastolarekin batera antola-



Argazkian, Koldo Tellitu ikastolako frontoi berrian

tutako Ibilaldi egunean ikastolako irakasle bat zendu zen, eta horregatik, *“Kepa joan zitzagun egun tristea legez gogoratuko dugu beti”*. Alderdi ilun horretaz aparte, pozik daude etorritako jende andanarekin eta urtean zehar egindako lanaz. Halaber, hedabideetan lortutako oihartzunaz geratzen da Koldo Tellitu: *“hezkuntza munduan izena eratzea ezinbestekoa da ikasle berriak erakartzeko”*.

Lehen “Gobela” izenez ezaguna zen, baina ikastolen publikazio garaian izena

eraman zioten –Gobela eskola publikoa egiteko– eta Betiko izenaz jarraitu zuen ikastolak; *“izenak alde egin bazuen ere, ikastolaren izaera hemen gelditu zen”* diosku lehendakariak. Datorren urtean 365 ikasle egongo dira ikastolan, eta etorkizuna itxaropentsu ikusteko arrazoirik badu lehendakariak, *“ixikienen gelan bigarren lerroa sartzen ari gara, eta eraikin honetan hirugarren solairu bat gehituko dugu –Ibilaldiaren irabaziekin– gela gehiago edukitzeko”*. m


KEPA BUTRONI

Ikastoletan bada hamaika erromes hezkuntza daukatenak lan eta amets hoietako batek gaur egin digu ihes. Zeruan ikusten dut begiratzen pozez, bihotza negarrez, baina irribarrez barruka indarrez has gaitezen oinez, pausu bana emonaz haren omenez.

Xabier Paia

Txanpi Rivero > soinketa monitorea

UPV-Barakaldo eskubaloia taldeko entrenatzaile ohiagaz egon gara



Argazkian, Txanpi Rivero

Eskubaloiko maila gorenean ibili bada ere, entrenatzaile amateurra izan da Txanpi Rivero. Berak dioenez, ogibide duen lana Leioako kiroldegian egiten du, edadetuei zein gazteei gorputza mugiaraziz. Ezaguna da oso herrian, eta oso maitatua. Izan ere, *“herriko familia askotako kideren bat nire soinketa saioetatik igaro da”*. Kanpora joateko eskaintzak baztertu egin ditu, berarentzat garrantzitsuena lana delako.

50 urte beteak dituela, horietatik 25

entrenatzaile eta 17 jokalaria, entrenatze jarduera uztea erabaki du, nahiz eta, *“nolabait nire betiko kirolari lotuta jarraituko dudan”*. Hainbeste urte elite-an egoteak sortzen duen tentsioak asko nekatzen du Txanpi Riveroren esanetan, eta *“urte hauetan denbora faltagatik egin ez ditudan gauzei ekiteko garaia heldu zait orain”*. Familiari eta lagunei denbo-

“Urte hauetan denbora faltagatik egin ez ditudan gauzei ekiteko garaia heldu zait”

ra gehiago eskaini nahi die, bai eta gazte denboran hartu zuen zaletasun bati; *“gaztetan nautika ikasketak burutu eta gero, itsasontziz ibiltzeko gogo bizia daukat”*.

Urte asko entrenatzen igaro eta gero, aldi hoberenen artekotzat aipatu digu entrenatze lanetan berria zela Askartzan eduki zuen gaztetxo talde bat, *“gerora talde horretako zenbait jokalarirekin ASOBAL mailara igotzea lortu genuen”*. Aldi txarra, ostera, aurtengo maila jaitziera, *“pena handia izan da, azken segunduan jasotako gol batek behera bidali gaitu”*. Harrigarria iruditu zaio, ordea, jaitziera eta gero jaso duen sostengua, *“batez ere kalean geldiarazi eta animatu nauen jendearena izugarria izan da. Asko poztu nau. Hainbeste jende ezagutzen ninduenik ez nekien”*. m

ETXEKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON -
Lacofris, s.L. SERVITEC
 Y MARKA GUZTIAK
 Y 24 ORDUTAN ERANTZU-
 NA
 Y 3 HILABETEKO GARAN-
 TIA
 Y 25 URTEZ ZURE ZERBI-
 TUA
 & 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

KURKUDI LIBURU DENDA
Euskarazko irakurgai
 Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
 T: 944 913 402

amesti 7sl
 [eraikuntzak]
 [etxeetako berrikuntzak]
 [gremioen koordinaketa]
 Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
 48990 ALGORTA

ERROTULOAK

THE BEST
 UNE-UNEKO ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK egiten ditugu

e-mail: hurustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo taberna
 eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
 T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa



Lala Mujika > Aldarte elkarteko behargina

“Gay eta lesbianok baditugu ezkontzaz gain bestelako erreibindikazioak ere”

Orain dela 10 urte sortu zuten Bilbon Aldarte, Gay eta Lesbianen Atentzio Zentroa. Orduetik hona hamaika proiektu garatu dute, eta ateak zabalik dauzkate sarritan ezkutukoa eta ezezaguna den gay eta lesbianen mundua ezagutzeko interesa duen edonorentzat. Iaz 5000 bat pertsonak izan zuten Aldarterekin harremana. Lala zerbitzuaren sortzaileetakoa da. Proiektuak bideratu, talde bat koordinatu eta orientazio psikologiko nahiz sexologikoa eskaintzen du.



Argazkian, Lala Mujika

—Zein da Aldarteren lana?

—ALDARTEK hiru eremutan egiten du lan. Batetik, banako mailan, atentzio psikologikoa eta sexologikoa eskaintzen du norberaren homosexualitatea ez onartzeak sortarazten dituen depresio eta antsietate egoerei aurre egiteko; laguntza ematen die orientazio sexualaren inguruko zalantzak dauzkaten pertsonen, homosexual edo lesbiana izatea modu baikorragoan bizi nahi dutenei, transexualen eta, baita, seme-alaben, ikasleen edo lagunen sexu-orientazioa modu gatazkatsuan bizi duten familiakoei eta inguruko... Bestetik, elkarren artean hausnarketa egiteko eta harreman sareak zabaltzeko aukera eskaintzen duen hainbat taldek funtzionatzen du Aldarten. Eta hirugarrenik, informazio, ikerketa, dokumentazio eta sensibilizazio arloko lana egiten du. Lesbianismoa, homosexualitatea, sexu aniztasuna, transexualitatea, eta oro har, sexualitatearen inguruko dokumentazio funts zabala daukagu eta tailerrak, hitzaldiak, mintegiak eta antzekoak antolatzen ditugu.

—Zergatik horrelako zerbitzu bat?

—Gizarteak muga asko jartzen du sexualitatea askatasunez eta duintasunez bizitzeko. Gure gizartean oraindik lehenengo eta bigarren mailako sexualitateak daukagu. Normaltzat jotzen denarekin bat ez datozen pertsonen arazoak dauzkate diren

“Ez da justua lehen mailako eta bigarren mailako sexualitateen arteko bereizketa egitea”

modukoak izateko eta agertzeko. Aurreituz betetako jendea dago, euren modukoak ez omen diren pertsonak diskriminatu eta iraindu egiten dituztenak. Aldartek sexualitatea ulertzeko eta bizitzeko aniztasuna errespetatzeko eskatzeaz

gain, aniztasun hori eskubide eta betebeharrak berdintzuz bizitzeko eskubidea ere aldarrikatzen du. Luzaroko lana daukagu.

—**Ekainaren 28an, Gay eta Lesbianen Askapen Eguna ospatzen da nazioartean. Zein izango da aurtengo aldarrikapena?**

—“Eskubideak eta agerikotasuna gay eta lesbiana guztientzat”, horixe izango da aurtengo lema. Gaztea, itxura onekoa, kulturaduna, ezkondu eta seme-alabak hazi nahi dituen, horrelakoa da komunikabideetan “saltzen” duten gay-en irudi idealizatua. Irudi hori hautsi eta oraindik ezkutuan dauden bestelako gay eta lesbianak ere badirela adierazi nahi dugu, urritasun psikiko eta fisikoak dauzkatenak, etorkinak, seropositiboak, drogamenpetasuna dutenak... ageriko bihurtzeko arazoak dituztenak. m

Astrabuduko aretoko futbol maratoia



Maratoian hogei talde lehiatu dira bost kategoriatan

Ekainaren 11, 12 eta 13an Astrabuduko aretoko futbol I. maratoia egin zen. Astrabuduko Racing-eko taldekideek amaiera ederra eman nahi zioten aurtengo ekitaldiari eta aretoko futbol maratoia antolatzea bururatu zitzaion. Maratoian 20 talde lehiatu dira bost kategoriatan.

Kadete kategorian Berriotxo, Artaromo eta Astrabuduko taldeak neurtu dira, lehia itxian: etxeok izan ziren txapeldun. Gazteen kategorian, berriz, Gaztelueta, Indautxu, Sestao eta Astrabuduko taldeek jokatu zuten, eta igandeko finalerako Indautxukoak eta ezkerlaldekoak sailkatu ziren.

Erregional mailan Astrabudu-UPVk irabazi zuen lau taldeen arteko norgehiagoka. Jado-Erandio eta Astrabu-UPV taldeak fina-

lean egon ziren Pozgarri eta Erandiotarren aurkako partidua irabazi eta gero.

Kategoria nazionalan ere lau taldek parte hartu zuten txapelketan, eta etxeok izan ziren nagusi Sestao, GSI-Bilbao eta Altamiraren gaineratik.

Astrabudukoek nesken futbola ere bultzatu nahi izan zuten maratoian, eta horregatik Arabako Skoda, Santanderreko Guarnizo eta GSI-Bilbo taldeak gonbidatu zituzten lehiaketan parte hartzera. Bilbotarrek irabazi zuten hiruen arteko lehia, eta antolatzaileak oso pozik geratu ziren nesken arteko partiduen erakarri zuten ikusle kopuruaz.

Igande eguerdian Erandiotarrak eta Astrabuduko helduak lehiatu ziren, maratoia

RACING, HAMABI URTE LANEAN

Racing taldea 1992an sortu zen. Urte hauetan guztietan Txemi Loza ibili da jo eta ke federazioko eta auzoko lana egiten taldea indartzeko. Taldea hiru urtean nazio mailako B kategorian egon zen. Geroxeago A kategoriarra igo zen 1995-1996 denboraldian, baina 1999-2000koan B kategorira itzuli zen. Urte hauetan auzoko gazte eta haurrekin lanean ibili da taldearen talde teknikoa, eta une honetan kadete, gazte eta erregional kategorietako taldeak dabilta auzoan. 300 kide dauka Racing taldeak, eta Jose M. Gil, Jose L. Pizarro, Javi Martin eta Josu Manzano entrenatzaileak, Jose Antonio, Txemi Loza eta Kepa Estefania delegatuekin batera osatzen dute talde teknikoa.

amaitzeko. Lagun giroa izen zen nagusi aretoko futbol jai honetan, eta horren erakusle argiena, amaieran eskaintako txitxi-burduntzia. m

ERDI AROKO AZOKA UZTAILAREN 2, 3, ETA 4AN

Uztailaren lehenengo asteburuan eskulangile, juglar eta erdi aroko pertsonaiez beteko dira Erandioko kale eta bazterrak. Erdi Aroko azoka barikuan arrastiko zazpitan hasiko da, eta domekara arte hainbat denborapasa egongo da: asto gainean ibiltzeko aukera, arku-tiroa egitekoa, erdi aroko musika entzutekoa, kale antzerkia, ipuin kontalariak... eta jakina, eskulangintza produktuak erostekoa ere.

GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Libxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Basolanak T. 94 467 17 13

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa F. 94 467 42 41

DEITU! ERANDIO (Bizkaia)

Mobila Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTEA



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Taberna Berr

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



[sopelana]



Meritxell Padigorria eta Aitor Apraiz Turismo Bulegoko arduradunak. Behean, aurkezpen eguna

Turismo Bulegoa

Zortzi urte luzeko lanak eman du fruitua

Zortzi urte luzez lanean jardun eta gero, hil hasieran zabaldu dituzte atea Sopelanako Turismo Informaziorako Bulegoak udaltxeko Hall Kulturean. Ekainaren 11n aurkeztu zuten herritarren aurrean Turismo Bulegoa, eta Imanol Garai alkateak Iparragirrearen berbak errepikatu zituen, Sopelana munduaren begien aurrean ezagutarazteko bultzada legez: "eman eta zabal ezazu". Horren albotik, turismo kanpaina eta kartel berriaren protagonistak ere, sopeloztar herritarrak, bertaratu ziren ekitaldira.

Turismo arduradun Aitor Apraizen berbek argi azaltzen dute Sopelanak turismo aldetik zer erakarpen daukan: "errekurtso naturalak, eta horren egokitasuna aisialdirako, momentuz batez ere

hondartzako jardueretan oinarrituko gara, hondartza ez da bakarrik eguzkia hartzeko. Beste errekurtso batzuk ere baditugu, naturagaz eta historiagaz lotuta daudenak: adibidez, tumuluak eta hilobiak. Ibilbide bat egiteko arrazoi ederrak dira, baina egokitu behar ditugu oraindik". m

Informazioarako: 94 406 55 19



PILOTA PARTIDA PROFESIONALA UZTAILAREN 2AN

Sopelanako frontoiak beste pilota partida profesional bat hartuko du uztailaren 2an. Gainera, ez edonolako, pelotarien izen-abizenak irakurrita goi mailako partida aurreikusiko du askok. Lauren buruetan zenbat txapela dauden zenbatzea, ostera, gaitza litzateke. Titin III- Lasa III bikoteak Martinez de Irujo eta Barriola edukiko ditu aurrez aurre. Apustuek zein kolore izango duten igartzea zaila izango da, baina zaleak pelota-gau ederraz goxatzeko aukera edukiko duela dioena ez da okertuko. Hitzordua 22:00etarako da, eta ETB-1ek zuzenean eskainiko du.

[sopelana]

Elkartasun ikas-bidaia

Ander Deunako ikasleak Tinduf-era doaz



Argazkian, Tinduf-era doazen Ander Deunako ikasle batzuk

Ander Deuna ikastolako 1. go Batxilergoko ikasleek Tinduf-eko saharaiar errefuxiatuen kanpamenduetara egingo dute ikas-bidaia. Eurek azaldu legez, "Erromana edota Parisera joan beharrean, Tindufeko kanpamenduetara goaz ikas-bidaian, giza laguntza eskaintzeko prest". Gutxi gora-behera 30 bat ikasle hartuko dute parte egitasmo honetan, eta bidaia urte amaieran egingo dute. Ander Deunako ikasleek elkartasunez beteko dituzte euren motxilak, eta Tinduf-eko *Otsailak 27* kanpamenduko eskola saharaiar batekin senditzea da euren asmoa.

Ikas-bidaia abenduan egingo dute Bilbo eta Tinduf lotuko dituen hegazkinean, eta

ordura arteko denbora bidaia prestatzeko eta dirua lortzeko erabili beharko dute. Sahararen aldeko ekitaldi batzuk antolatuko dituzte horretarako: hitzaldiak, bideo emanaldiak, kamisetak saltzea... eta horien guztien artean, ikasleek eurek batera Tinduf-eraino eramango duten materiala bildu beharko dute.

Behin Tindufen, familia saharaiar haimetan egingo dute lo, eta hartu-eman kulturalerako ekitaldiak prestatuko dituzte. Bestetik, bidaiaren prestaketa-lanak eta Tindufen egingo duten egonaldia bidez grabatzeko asmoa daukate, gero dokumental bat osatzeko. m



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

4 bide
pinturak



BONDEX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

Instalazio elektrikoak
Electro LAIA

Larrialdi Zerbitzua 24 ordu
670 415 732

Konpromisorik gabeko aurrekontuak / komunitate, lantegien...
mantenimendua / etxebizitza, lonja, pabiloien erreformak /
bonba hidraulikoak / telefonia, ahots eta datuen sareak

LAIK
Taberna

San Pedro
jai zoriontsuak
sopeloztar guztioi!!!

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

BOST MUSIKA TALDEK JASOTZEN DITUZTE DIRU-LAGUNTZAK

Berangoko udalak diru-laguntza batzuk eskaintzen ditu urtariletik, herriko musika taldeak laguntzeko. Grabasonic Estudioetan gela bat alokatzeko laguntzak dira, eta udalak alokairuaren erdia ordainduko du. Diru-laguntzak jaso ahal izateko baldintza bakarra hau da: musika taldeko kideetan erdiak berangoztarrak izatea. Taldeek ordainagiri bat aurkeztu beharko dute udalean, eta orain arte, *Patada en la papada*, *Crownless*, *Ekin*, *Hundred* eta *Idiliar* taldeek hiruhilabetero 60 euroko laguntza jaso dute.

50 UME GAZTE EUSKALTEGIAN PARTE HARTZEKO IRRIKITAN

Uztailaren 1ean hasiko den Gazte Euskaltegian 6-12 urte bitarteko 50 bat ume eta gazte euskaldunek hartuko dute parte. Berangoko udalak eta Kultur Etxeak, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duten Gazte Euskaltegia uztailaren 1etik 23ra gauzatuko da. Jarduerak eta ekitaldiak asteleheneretik barikura egingo dira, 11:00-13:00 orduetegan.



2015 Plan Estrategikoaren egitasmoak eskura daude



Planaren berri emateko udalak ipini dituen kartelak

Berangoko udalak egindako inkesta, eztabaida-gune eta beste hainbat ekintzetatik ateratako emaitzak batu ditu 2015 Plan Estrategikoan. *“Berango 21, guztion konpromisoa”* izena daukan planaren berri berangoztarrek etxean jasoko dute, triptiko baten bitartez.

Iaz hasi zen garatzen udalerriko Plan Estrategikoa, eta berau osatzeko 400 bat inkesta egin ziren berangoztarren artean. Horren albotik, 18 hilabetez, hainbat eztabaida-gune antolatu ziren, eta besteak beste, solasaldiak egin ziren hurrengo gaien inguruan: *Berango, goxatzeko herri bat, eta aurrera egiteko bizitzeko herria*. 2015 Plan

Estrategikoak udaleko alderdi guztien oniritzia jaso du.

Planaren egitasmoak

2015 Plan Estrategikoan batzen diren egiteko edota helburuen artean dago, besteak beste, Berangok daukan herri nortasunari eutsi eta sendotzea. Azken urteotan biztanle kopuruari begira asko hazi den herria da Berango, eta herriaren nortasuna zaindu nahi horretan zeregin argia daukate udalerrira bizitzera joandako biztanle berriek ere. Bestalde, Planaren baitan dagoen beste puntu bat Agenda XXI egitasmoaren helburuetan oinarritutako politikari jarraitzea da.

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Pedro Botejara > Lemoizko alkatea

“Lemoiz herriari abiatzea falta zaio, apurka mugitzen badabil ere, aurrera egin behar du”

Alkatearen aulkian jarri zenetik oraintxu beteko du Pedro Botejarak urtea. Lemoizko EAJko lehendakari izan da urteetan, eta hainbat alditan ezezkoa eman ostean, iaz onartu zuen alkate izatera aurkezteko eskaintza. Gernikan jaioa da, baina 9 urte zeuzkanetik lemoiztarra da Botejara.

—Zer egin gurako zenuke udalerrian, edor-zegaitik egin ezin duzuna.

—Proiektu asko dauzkat, asmo handiko proiektuak, kostu handikoak, eta ilusio handiz aurrera eramatea espero dut. Besteak beste, Urizarren frontoia bota eta antzinako plaza berreskuratu, eta frontoia beste nonon bererai; Andra urbanizatu baina nekazal kutsua gordez; eta Armintzan plaza bat sortu, kaleak konpondu... Kostaldeko pasealekua, bidegorria eta senderismo bidea, hori proiektu handia da: auzoak hobeto komunikatuko dituelako, eta etxe guztietara hodi hirukoitza bideratzeko aukera emango duelako, gasa, teknologia, argindarra eroan ahal izateko.

—Egin al duzu zeozer egin gura ez zenuena?

—Hasi berritan uste duzu gauzak ondo egiten zabilzala, eta erratu egiten zara. Ez da kostu handiko errakuntza izan, baina bai oso deserosoa: porturako bidea itxi nuen eta onartzen dut ez nuela beste baliabiderik ipini. Konponduta dago, baina onartzen dut erratu nintzela. Horrez gain, egin gura nuen guztia ez dut egin, baina zeozer bai.

—Zelan bizi da euskara Lemoizen?

—Gero eta jende gehiagok dakiela uste dut, hala ere gehiago berba egin beharko litzatekeela derizot, ni neu barne. Ziur nago Lemoizko ume denek euskaraz ikasten dutela, eta euren artean euskaraz egiten dute askotan. Nagusi askok euskaraz egiten du. Gehiago egin behar-



Argazkian, Pedro Botejara

ko litzateke, baina hori gaitz kolektiboa da.

—Zein da zure Lemoiz perfektuaren irudia?

—Martxan jartzea falta zaio, abiatzea. Apurka mugitzen badabil ere, geldo dagoela dirudi, baina asko falta zaio, nik uste beste udalerririk batzuekiko atzerapen handia daramagu. Nire

«Zentral nuklearrarena izan zitekeen, eskerrak jainkoari ez da izan; ez ezazue sekula horrelako akatsik egin»

ideala ez da Lemoiz herri handi bihurtzea, nire ideala ez da Lemoiz barriatutako etxe bakartiez beteta ikustea. Nik gura dut Lemoizen ondo eraikitzea, eraikiko diren urbanizazioak urbanizazio kalitate on batez egitea, eta auzoen arteko komunikazioa hobetzea: autobus eskaintza eskasa da, ez dira leku guztietara heltzen. Herritarrek komunikazioa hobetzea gura dugu, geugaz harremanetan ipini daitezela.

—Zentral nuklearraren gunerako hainbat proiektu egin ei ziren, zelan dabil auzi hori?

—Zauri bat da guretzat, bakean dagoena baina zauria. Atlantida proiektua hor dago, ez da atzera bota. Gauza polita da, interesgarria, baina kostu handikoa. Nik uste erakundeak laguntza falta zaio; babes instituzionala, beharbada badauka. Proiektu horrek nire babes osoa dauka, eta beste proiektu batzuk ere aurkezten badira, babes emango diot zauri hori ixtera datorrenari, baina ez dut espekulatuaren esku eta udalerriri kalte egin diezaiokeen inoren esku utziko egitasmo hori. Aisialdia eta industria batuko lituzkeen egitasmo bat, kutsatzen ez duena, hori bai, baina mina eginda dago, eta ingurua berreskuratu gura badugu, ondo egingo dugu, esanez: hori izan zen edo izan zitekeen, baina Jainkoari esker ez da izan, eta hau da, eta sekula ez ezazue horrelako akatsik egin. Udalerri honek aurrera egin behar du, ez edozein prezioan, baina aurrera egin behar du.

—Interesa dauka: zenbateko soldata daukazu?

—250.000 pezeta irabazten dut. Nik Eroskin egiten dut behar, kooperatibista naiz, eta lanaldia gutxitu egin dut. Egun batzuetan goizeko Getan sartzen naiz Eroskin, gero udalean denbora nahikoa egon ahal izateko. Alkate bati ordaintzen zaiona beharbada ezin da diruz ordaindu. Alkatezta ez da bakarrik kaleetan lanak egitea, ardura itzela da. m

LEMOIZ

- **Biztanleak:** ia 1.000
- **Hiru auzo nagusitan banatuta:** Urizar, Armintza eta Andra
- **Herriaren azalera:** 13,4 km koadro
- **Udala:** 7 zinegotzi. EAJ
- **Euskaldunak eta ia euskaldunak:** 775 inguru (%75-80)
- **Erdaldunak:** 225 (%25)

FORUM BARTZELONARA BIDAIA ANTOLATU DUTE GORLIZEN

Gorlizeko Kultur Etxeak Forum-era (Bartzelona) bidai antolatu du uztailaren 2,3, eta 4rako. Hiru izareko hotelean egonaldia, bi buffet-gosari, autobus bidai eta Forum-erako sarrerak hartzen ditu barruan irteerak. Helduentzat 129 euroko prezioa dauka, gazteentzat 124 euro (errolatuak 100) eta umeentzat 121 euro.

Informazio gehiago: 94 677 40 00


PLENTZIAK BANDERA URDINA LORTU DU

Seigarren urtez jarraian Plentziako hondartzak bandera urdina edukiko du. Bandera urdinak, besteak beste, hondartzek hurrengo baldintzak bermatzen dituztela adierazten du: bainatzeko uren kalitate ona, kostaldeko eta ingurumeneko legeria betetzen duela, eta erabiltzaileen segurtasunari dagozkion garrak eta zerbitzu mailak betetzen dituela.

UMEENTZAKO TAILERRAK URDULIZEN

Urdulizeko Kultur Etxeak umeentzako lantegiak antolatu ditu ekain hasieratik, eta uztailaren zehar ere eskainiko ditu. Lantegiok 11:00etatik 12:15era egingo dira, hurrengo egunetan: ekainaren 26an, eta uztailaren 3an, 17an eta 24an.

GORLIZ Ertibil erakusketa ikusgai uztailaren 6tik 16ra



Erakusketa ikusgai egongo den Aida Ulibarriren lan bat

Ertibil Arte Plastikoen erakusketa ibiltaria ikusgai izango da Gorlizko erakustaretoan uztailaren 6tik 16ra. Ertibil 2004 erakusketa 20 sortzaile gazteren lanak aukeratu ditu, erakusketa parte hartzeko aurkeztu ziren 60 proposamen ingururen artean. Margoak, eskultura, argazkilaritza, bideo sormenak eta beste batu ditu erakusketa aurten, eta 2004ko hau Ertibil-en XXI. aldia da. Era-

kusketa honek hiru sari banatzen ditu sortzaile berrien artean. Aurtengo irabazleak hurrengoak dira: Kepa Garraza (Berango), Guillermo Sanchez Asua (Galdakao) eta Edurne Gonzalez (Sestao). Erakusketa parte hartzeko gainontzeko aukeratu artean eskualdeko beste hiru sortzaile daude: Amara Brea (Berango), Ibon Garagarza (Getxo) eta Aida Ulibarri (Getxo). m

Ekai. 25 - uzt. 11

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Adimen Urriko Uribe Kosta elkarte**ko kideen lanak. Erromoko erakustaretoa. Ekainaren 25era arte.

URDULIZ

► **Jaietako Kartelak**. Andra Mari jaietarako kartel lehiaketako lanak. Kultur Etxea. Ekainaren 15etik 30era.
► **Margo erakusketa**. Kultur Etxeak antolatutako lantegi erakusketa. Uztailaren 5etik 15era

PLENTZIA

► **Carmen Bustinza-ren margolanak**. Goñi Portal kulturala. Uztailaren 1etik 15era.

BERANGO

► **Lantegietako sormenak**. Kultur Etxeko lantegietako ikasleen sormenak. Berangoetako Kultur Etxea. Egurra lantzeko lantegi erakusketa. Ekainaren 27ra arte.

GORLIZ

► **Abiazoaren mendea**. Erakustaretoa. Ekainaren 27ra arte.
► **Erick Marlop-en arte erakusketa**. Erakustaretoa. Ekainaren 28tik uztailaren 5era arte.
► **Ertibil erakusketa**. Erakustaretoa. Uztailaren 6tik 16ra.

SOPELANA

► **Zirri-Marra elkartearen margolanak**. Udaletxe inguruan. Ekainak 26 eta 27, egun osoan zehar.

ANTZERKIA

SOPELANA

► **ES3IN**. Dantza eta antzerki ikuskizuna Organik taldearen eskutik. Udaletxe plaza. Ekainaren 27an, domeka. 20:00.
► **Cleopatra**. Dantza ikuskizuna Chicas de Alejandria taldearen eskutik. Udaletxe plaza. Ekainaren 28an, astelehena. 22:00.
► **Ocho historias a comentar**. Itzartu antzerki taldearen eskutik. Hall-Kulturaleko Eginizun Aretoa. Uztailaren 3an, zapatua. 22:00.

ZINEMA

GETXO

► **Gaurik laburrena**. Film laburren erakustaldia. Biotz-Alai plaza. Uztailak 5 eta 6. 22:00.



► jaiak

Jaien garaia heldu da, nora goaz?

Udan jaien termometroa lehertu beharrean jartzen da, eta jaiak dira udako erreginak. Ekainak harrera ona egin dio udari, eta udak arreta berezia ipini du jaietan. San Juanak, San Pedroak, Karmengoak, San Inazioak, Andra Mariak... eta santuen izenean egiten ditugun festa danak. Hasi da jaien tourra eta txirridulariak legez jaietarako prestatzen hasi beharko gara: hasieran entrenamendua apurka-apurka eginez, gero sasoi ona hartzeko, gehiegikeriak egin barik. Hurrengo zita Sopelanako San Pedroen azken txanpa.

• Non: edonon • Noiz: uda osoan • Zer: jaiak

PLENTZIA

► **Hercules**. Haur zinema. Goñi Portala. Uztailak 1, eguena. 17:30.

► **El Gato**. Haur zinema. Goñi Portala. Uztailak 3, zapatua. 17:30.

► **El perro busca tesoros**. Haur zinema. Goñi Portala. Uztailak 8, eguena. 17:30.

► **Pegado a ti**. Gazte zinema. Goñi Portala. Ekainak 26, zapatua. 18:00.

► **Ponte en mi lugar**. Gazte Zinema. Goñi Portala. Uztailak 10, zapatua. 18:00.

► **Mystic River**. Helduentzako zinema. Goñi Portala. Uztailak 2, barikua. 22:00.

► **El Jurado**. Helduentzako zinema. Goñi Portala. Uztailak 9, barikua. 22:00.

URDULIZ

► **Looney Tunes, de nuevo en accion**. Haur Zinema. Lehendakari Agirre Plaza. Ekainak 29. 10:30.
► **El Cid, La leyenda**. Haur zinema euskaraz. Lehendakari Agirre Plaza.

Uztailak 6, martitzena. 10:30.

BERANGO

► **Buscando a Nemo**. Haur Zinema. Eginizun Aretoa. Ekainak 27, domeka. 17:30.

► **La Ultima Llamada**. Gazteleku. Ekainak 27, domeka. 17:30

GORLIZ

► **Buscando a Nemo**. Frontoian. Uztailak 10, zapatua. 22:30.

MUSIKA

GETXO

► **XXVIII. Nazioarteko Jazzaldia**. Kontzertu nagusiak: Milo Suchomel Quartet eta Bill Bruford's Earthworks, ekainak 30. Robin Verheyen Trio eta Brussels Jazz Orchestra eta Bert Joris, uztailak 1. Jazz Sixtet of Rostov's Conservatoire eta Chano Dominguez, uztailak 2. Listen eta McCoy Tyner, uztailak 3. Barbara Hendricks & Magnus Lindgren Quartet, uztailak 4. Biotz Alai plazan. 21:30. Sarrerak salgai.

GORLIZ

► **Abesbatza**. Lirain txiki eta Lirain abesbatzak. Diska berriaren aurkezpena. Elizan. Uztailak 10, zapatua. 20:00.

SOPELANA

► **Arterror Noise and Film Fest**. Rock kontzertuak eta film laburren erakustaldia. Txoznetan. Ekainak 28, astelehena. 21:30.

► **Udako Musika eta Dantza zikloa**. Doinuzahar abesbatza uztailaren 9an, eta Kantika abesbatza uztailaren 10ean. San Pedro elizan. 20:00.

BESTEAK

BARRIKA

► **VI. piragua elkartertzea**. Umeen elkarteratzea Butroe ibaian. Ekainak 26, zapatua.

PLENTZIA

► **Guggenheim-era bisita gidatua**. Uztailak 16. Izen-ematea uztailaren 1etik 11ra, Kultur Etxean.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20^o ANIVERSARIO
URTEURRENA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114


48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net

[albuma]



Bustoak eskualdean

Bigunegi ei daukagu burua gaur egun, erraz moldatzen ei dute gure iritzia eta pentsakera komunikabideetako eta kaleko berriek, iritzi-emaileek, iragarkiek, alde guztietatik heltzen zaizkigun mila ahotsek. Beste garai batzuetan orain baino ugariago ei ziren izaera eta siniste sendoko gizakiak, euren ondoko oroitzapenean ere arrasto ezabagaitza uzten zutenak. Eduki ditugu halako batzuk gure eskualden bertan, eta izan ere, era ezin tinkoagoan –harrian edo burdinean– irudikaturik aurkitzen ditugu gaurko gure kaleetan: hona hemen batzuk argazkitan.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Ama, bikotekidea, irakaslea eta idazlea da (berak, beharbada, beste modu batean antolatuko luke segida). Gainera, zutabeak idazten ditu Gara egunkarian, hainbat irratsaiotan parte hartu du iaz arte eta pare bat literatur lehiaketarako epaimahaikoa ere bada. *“Lan gairtasun handia daukat”*, dio Laura Mintegik. Sinisten dizugu, Laura. Algortan 31 urte inguru daroan lizarrar honek bere nobeletarako denbora gitxi uzten dion zamaren zati bat arintzea erabaki berri du, eta arlo batzuei dagokienez datorren urtea sabbatikoak izango duela aitortu digu. Hala ere, ez da hori elkarizketa honen ardatza, emandako betebeharrak zerrendari orain gitxi Mintegik gehitu dion beste bat baizik. Apirilaren 23an aurkeztu zen Euskal PEN Klubeko presidentea da nafarra, eta hori da orrialdeotara ekartzeko erabili dugun aitzakia.

Laura Mintegi

Askatasunaz

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zer da PEN Kluba?

—1921ean, Lehen Mundu Gerra amaitu ondoren, idazleek sortutako nazioarteko erakunde bat. Garai horretan, elkar ulertzeko gune bat sortu beharra nabaritu zen, jarrerak muturrekoak ziren eta. Alde batetik, adierazpen askatasunaren aldeko mugimendua da PEN Kluba, beste alde batetik zentsuraren aurkakoa. Oso garrantzitsutzat jo zen ideologia, erlijio, arraza eta nazioen arteko elkar ulermenerako erakunde bat sortzea.

—Eta nondik hartu du izena?

—Hitzak berak esaten du: PEN. Hau da, poetak, entsaiogileak eta nobelagileak. Askok uste dute idazlumatik datorrela, ingelesez *pen* delako, baina egiazko esanahia bestea da. Geroago, argitaratzaileak, kazetariak eta kantagileak ere gehitu ziren; oro har, denek daukate zer ikusia hitzarekin.

—Zelan dago eratuta erakundea?

—Gaur egun 130 talde daude mundu osoan, eta bost batzorde. Garrantzitsuenak, eta lehenik sortu zena, idazle presoen aldeko batzordea da. Baina badaude beste lau: itzulpengintza eta hizkuntza eskubideen batzordea, emakume idazleak, ba-

kearen aldeko batzordea eta, azkenik, erbestetarik dauden idazleak.

—Zergatik idazleak?

—Idazleon lanabesa hitza da, eta konturatzeko gara hitza izan behar dela elkar ulertzeko tresna bakarra. Hau da, gure artean esaten dugun bezalaxe, gauzarik gogorrena esanda ere, beti izango da onargarriagoa beste edozein bitarteko

“Idazleak munduan gertatzen dena azaltzeko ezinbesteko bihurtu dira”

erabiltzea baino. Gu hitzaren profesionalak gara eta horretan sinesten dugu. Ziur gaude hitzaren bidez elkar ulertzera heldu gaitzkeela. Beste alde batetik, zenbait sinismen handi gainbehera daude. Askotan ikusten dugu gizarteak, gauzak ulertu ahal izateko, ez duela jotzen, beste garai batzuetan bezala, aztiarengana, abadearengana edo filosofoarengana. Askotan idazleoi ipintzen zaigu mikrofonoa aurrean, guk geuk azal dezagun zer gertatzen ari den munduan. Idazleak ezinbesteko bihurtu dira munduan gertatzen dena azaldu ahal izateko. Badakigu ardura hori

dugula, literatura ez delako edergarri hutsa. Literaturaren bidez giza harremanak errazten eta leuntzen lagundu daiteke.

—Baina gero eta gitxiago irakurtzen ei da...

—Bai, egia da, baina askotan transmisioa ez da zuzeneko, zeharka ere egin daiteke. Zenbaterik irakurri du Kafka? Gutxi, baina edozeinek daki zer den egoera kaf-

kiano bat, eta zer den absurdoa. Eta agian askok ez dute irakurri Orwell, baina edonork daki Anaia Nagusia zer den. Ideologiaren transmisioa ez dator zuzenekoan liburuetatik, beste modu askotan dator, eta ideia horien atzean idazle bat egon da noizbait.

—Zer lan dauka Euskal Pen Klubak?

—Momentu honetan sortze prozesuan gaude. Euskal Herrian ia amaitu dugu prozesu hori. Oraingo honetan oso ondo egin nahi izan dugu, ez aurrekoan bezala. Orain 17 urte ni ere egon nintzen sortzaileen artean, eta orduan ez genuen sor-



“Oso testigantza gogorarekin sartuko gara: egunkari baten itxiera eta tortura salaketak”

tu egitura sendoa Euskal Herrian. Ez genuen elkarrekin erregistroan sartu, ez dirulaguntzarik eskatu, ez egoitza finkoa sortu... egitura ahulegia zen eta ezin genuen nazioartean agertu hemen babes nahikoa ez genuelako. Nazioarte mailan, berriz, nahiz eta bilkura batzuetan egoteko gonbitea jaso dugun, oraindik alta jaso behar dugu urtean behin egiten den kongresuan. Orduetik aurrera eskubide osoko zentroa izango gara. Baina badugu zerbait aurreratuta. Izan ere, asko lagundu digu Ingalaterrako eta Kataluniako PEN Klubek (sortu ziren lehen biek, hain zuzen) babespean hartu dituztela Martxelo Otamendi, Iñaki Alegria eta Iñaki Uribe. Horrek itzelezko oihartzuna izan du nazioartean, eta aldi berean guk talde

berria aurkeztu dugu. Jakinmin handia sortu da gureganako eta jende asko eduki dugu galdezka gure herriaz, gure hizkuntzaz, gure literaturaz... Ez gara atzeko atetik sartu, ate handitik baizik, eta gainera

“Nazioarteko PEN Klubak min handia egiten dio zenbait estatuari”

oso testigantza gogorarekin: egunkari baten itxiera eta tortura salaketak. Eta gehien egin diguten galdera izan da nola ez garen lehenago egon.

—Nik neuk ere egingo dizut galdera bera ba... Zer gertatu zen lehen ahalegin antzu bietan?

—Lehenengo 1951n izan zen. Orduko

kide gehienak erbestean zeuden, eta batzuk Ipar Euskal Herrian. Hegoaldekoak, mutu. Bilerak Parisen egiten zituzten, baina egoera ez zen ona eta. Urtebete iraun zuten. Bigarren ahaleginean, esandakoetatik: egitura ahula. Baina lanik egin zen. Kurduak babestu genituen, esaterako.


—Euskal PEN Klubeko idazleek euskaraz idatzi behar dute derrigor?

—Bai. Gure artean ez dugu eztabaida hori izan apenas. Minutu erdian burutu dugu. Aurreko PEN klubean erabaki zen erdaldunei eskaintza egitea, batez ere tirabirarik ez sortzeko. Gure kasuan ez dugu beharrik ikusi. Badago Espainiako PEN Kluba —iazko azaroan sortu zen—, gaztelaniaz idazten dutenek osatua, eta beraz gaztelaniazko idazleek badute hor aukera, nahi izanez gero.

—PEN Kluba 1921ean sortu zen. Zeozer lortuko zuen honezkerok...

—Baietz uste dut. Egia esan, alde batetik jende askok ez du ezagutzen PEN Kluba eta hasieratik esplikatzen behar da zer den. Baina, aldiz, beste zenbait eremutan ia ez dut azaldu behar. Estatuak, batez ere, badakite zer den. Sentitu egiten dute presio hori; PEN Kubak prestigioa daukanaz nazioartean, min handia egiten dio zenbait estatuari. Kontuan hartu behar da lan handia egiten dutela PEN Klubean Gunther Grassek, Susan Sontagek, Vargas Llosak, Saramagok... Ospe handiko

idazleak. Kultura arloan, berriz, ez dago inolako zalantzarik klubaren eraginaz. Esaterako, bizpahiru iturri izaten dira literatura nobel saria izendatzeko, eta bata PEN kluba da. Nobel saria, askotan, beraien herrietan oso deserosoak diren idazleei ematen zaie, eta horren atzean PEN kluba dago. ^m



Uriolak Erromon

Gonzalo M. Azumendi

Hauxe duzue Gonzalo M. Azumendi argazkilari ospetsuak helarazi digun irudia. Gazteek ez dute ingurua argazkian azaltzen den moduan ezagutuko. Erdian Areetako tren geltoki zaharra ikus daiteke, bai eta Erromo eta Areta auzoak banatzen zituzten barrerak: bazter hauek urperatu zituzten 1977ko ekaineko uriolek.

AREETAKO TREN GELTOKIA, 1977

Orain metro izenaz ezagutzen dugun Bilbo-Plentzia trenbide zaharrak alderik alde zeharkatzen du Uribe Kosta. Herri guztietan dago geltokiren bat, Gorlizen, Lemoizen eta Barrikan izan ezik. Gainerako zazpitan hamasei estazio daude guztira, gehienak Euskotreneko garaian zeuden leku bertsuan. Askorentzat, egia esan, metroagaz ezer gitxi aldatu da lehengo trenarekiko, baina aldaketak egon direna ezin daiteke ukatu. Metroak hainbat herriren itxura aldatu du, geltoki batzuk lurpera eroanez, beste batzuk sortuz eta baten bat desagertaraziz. Eta gu, pozik gaude metroagaz?

Metroa Gure bizkarrezurra

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Jendea pozik

Metro Bilbaok inkesta bi egin zituen iaz, erabiltzaileak zerbitzuagaz pozik zeuden ala ez neurtzeko. 1etik 10era neurtuta, metroak 8,08ko "nota" atera zuen, aurreko urtean baino hobea. Jendeak hoberen baloratutako alderdiak garbitasuna, bizkortasuna eta garaiz ailegatzea izan ziren. Txarren, berriz, prezioa: metroak ozta-ozta lortu zuen "aprobataua" arlo horretan. UK-k ere inkestatxoa egin du Uribe Kostako geltoki batean. 30 lagun galdetuta, 27k metroagaz oso pozik daudela adierazi zuten. Hala ere, batek baino gehiagok egin du kritika geltokietan komunik ez dagoelako.

1995eko azaroaren 11n Bilboko Metroa inauguratu zen. Artean, lehengo Bilbo-Plentzia trenbidearen ibilbide bera zeukan –gero etorri ziren Boluetara arteko hiru geltoki berriak eta Ezkerraldeko doan 2. linea–, baina Bilboko estazio guztiak lurpean zeuden eta batzuk berriak ziren. Uribe Kostan ez zen horrenbeste aldaketa egon: hiru geltoki lurperatu zituzten –Algorta, Areeta eta Erandio–, eta gainerako itxura askotxo aldatu zen, baina trena, beste izen batez bazen ere, lehengo leku beretik igarotzen zen. Hainbat eskari egon zen aipatutakoez gain geltoki gehiago lurperatzeko –Larrabasterra, barbarako–, baina azkenik, trenbidea gaur ezagutzen dugun moduan geratu zen.

Metroak ekarri zuen berrikuntzarik po-

Beste geltoki berri bat ere sortu da Uribe Kostan metroak bere ibilbidea hasi zuenetik, baina horrek ez du hainbesteko ika-mika eragin. Gobelako estazioz gabiltza berbetan, noski. 1996ko San Joan egunean ireki zen, Metro Bilbaok egindako ikerketek inguru horretan geltoki berria egitea komeni zela zioten eta. Azkenik, aldaketa txiki bat gehiago etorri zen metroagaz batera: ordura arte Axpe zeritzan estazioa Astrabudua izenagaz bataiatu zuten.

Gero eta bidaiari gehiago

Metroa lehengo trena baino gehiago erabiltzen dela esaten da. Guk geuk ez daukagu daturik hori baieztatzeko, baina badakigu metroa bera gero eta gehiago erabiltzen dela

«2003an 17 milioi bidaiari inguru izan zen Uribe Kostako geltokietan»

lemikoena, zalantza barik, Getxoko geltoki zaharra kendu eta beraren ordez Bidezabalekoa egitea izan zen, Algortarantz joanda 500 metro harago. Neurri hark hautsak harrotu zituen, eta gauzak ez daude oraindik guztiz bare. Zelangura, metroko erantzuleek ez dute atzera egin hartutako erabakian, eta gainera, ematen du bizilagunen mobilizazioak moteldu egin direla. Guk geuk, erreportaje hau egitean, ez dugu lortu tartean dabilzanek ezer esatea arazo honetaz.

urterik urte. Uribe Kostari dagokionez, 1997an 13 milioi eta erdi bidaia egon ziren gitxi gorabehera, eta iaz, berriz, 17 milioi inguru. Jende gehien ibiltzen den geltokia Areeta da: iaz ia lau milioi bidaia abiatu ziren bertatik. Konparazio baterako, Bilboko geltokirik erabilienean, Abandok eta Alde Zaharrak, sei milioitik gora bisita hartu zuten urte berean. Jende gitxi, berriz, Lutxanan ibiltzen da, bai Uribe Kostan bai metro osoaren ibilbidean: 197.000 lagun iaz.



Metroari Urdulizen egin dizkiogun hiru argazki



C gune zigortua

Kasu berezi bat ekarri behar dugu gogora: Larrabasterra. Hasiera-hasieratik, estazio horrek ordutegi desberdinak eduki ditu udan eta neguan. Udan, hain zuzen, neguko tren kopuruaren bi halako egoten da, hondartzara joaten den den jendetza hobeto

baina oraingoz inork ez daki noiz gertatuko den hori, udal agintariet, biztanle kopurua gora doala ikusita, premiazkoa dela adierazi duten arren. Metroko C gunean bizitzeak badu eragozpenik, beraz. Metro Bilbaok adierazi digunez, gainera, ez dago oraingoz Urduliz eta Plentzian tren kopurua handi-

«Oraingoz, ez dago Urduliz eta Plentzian tren kopurua handitzeko asmorik»

hartzeko. Egia esan, gaur egun Larrabasterrak 1995ean baino tren gehiago hartzen du egunero. Arazoak, orain, Sopelanan hasten dira. Bertatik, Urdulizetik eta Plentziatik bezala, 20 minuturo igarotzen da metroa. Hori dela eta, Udaletxeak lur sail bat gorde du noizbait hirugarren trenbidea eraiki eta sarritasuna 10 minuturokoa izan dadin,

tzeko asmorik ez modurik ere. "Gaurko tren-sarritasunak bat egiten du trenbideak berak daukan azpiegituragaz", esan digute bertako iturriek. Eta bide batez, inork ez digu azaldu zergatik metroa, Uribe Kostan, gune bitan banatuta dagoen, horrek txartelaren prezioari dakarkion igoera eta guzti. m

Errepide gaineko pasaguneak

Oraindik ere, autoak geldiarazten dituzten trenbide-pasagune bik irauten dute Uribe Kostan. Bata, Urdulizen, eta bestea Getxon, Maidaganen. Herri bi horietako udaletxeek behin baino gehiagotan eskatu dute pasaguneok kentzea (ahal bada, trenbidea lurperatuz), baina, diotenez, erabakia ez dago euren esku, metroaren erantzukizuna daukan Bizkaiko Garraio Partzuergoarenean baizik. Partzuergoak, berriz, zera dio: "Metro Bilbaok Euskotreneko bide zaharra jaso zuen 1995ean. Bide hartan 14

«Pasaguneetako masa detektoreek, autorik geldituz gero, trena geldiaraziko lukete»

pasagune zeuden, eta gaur egun bi baino ez daude". Bada instituzioen arteko konpromiso bat horiek ere kentzeko, Partzuergoko iturriek adierazi digutenez (udaletxeek ere parte hartuko lukete horretan), baina lanak ez dira hasiko 2. linearako aurreikusita dauden inbertsioak amaitu arte. Beste modu batera esanda, 2010 urtera arte gitxi gorabehera. "Dena dela", jarraitu du Partzuergoak, "egoera horri aurre egiteko hainbat segurtasun-neurri hartu dira: leku horietan trenak mugatuta daukate abiadura; pasagune biek daukate hesiak eta ondo adierazita daude; eta gainera, pasagune bakoitzean masa detektore bana dago. Autorik geldituko balitz bertan, bai norantza batetik zein bestetik datozen trenak geldiaraziko lituzkete detektoreok".






Urteurren jaia

Algortako San Nikolas ikastolak 40 urte bete ditu aurten: ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Ikastolakoek urteurren berezi hau urte osoan zehar ospatu badute ere, ekainaren 12rako egun handia antolatu zuten. Irakasle zein ikasle ohiak, erakundeetako ordezkariak... ehundaka lagun bildu zen ikastolara, festa giroan, egun handi hau behar den moduan ospatzera. Ikasleek herriko kaleak danbor-hotsez bete zituzten goizean, ikastolan ekitaldi ofiziala gero, bazkaria, dantzak, haur jolasak... Hemen duzue argazki sorta hau egun gogoangarri horren lekuko. Ah! Zorionak, San Nikolas Ikastola! Eutsi goiari!

Argazkiak: **Miguel Toña eta Miguel del Tio**







zineeskola

Oskar Fernández

Zinema generoak (II)

Literaturan irakurleek beren gustuko genero zehatzak dituzten bezalaxe zineman ere ikusleek genero batzuk beste batzuk baino gehiago maite dituzte. Beraz egin dezagun generoaz erakusketa txikitxo bat. **Animaziozkoa** begiratu hasi gaitezke: honek duen kanpoko itxuragatik badirudi umeei zuzenduta dagoela, baina lan bikain batzuk edonori zuzenduta daude, adibidez "Chihiroren bidaia" Hayao Miyazaki zuzendariak 2001. urtean egindako film bikaina eta txalotua. **Belikoa** deitutako generoan maisu-lan bat aipatuko dugu: Akira Kurosawa japoniar zuzendari handiak egin zuen "Ran" filma, 1985. urtean. Aipa dezagun orain jendeari izugarri gustatzen zaion generoa: **drama**, eta adibide bat ematearren Erich von Stroheim-ek egindako lana gogoratuko dugu, berak 1925. urtean zuzendu zuen "Greed" film bikaina aipatuta. Zalantzarik gabe beste genero arrakastatsu bat **beldurrezko filmena** da eta adibide guztiz egokia ekartzearren 1969. urtera joango gara "The night of the living dead" George A. Romero zuzendariak egin zuen film bikaina "ikusteko". Genero ospetsuetan ospetsu dugu **komedia** ere. 1935. urtean kokatuko gara eta han Charles Chaplin zuzendari bikain, aktore handi eta gizakiontzat pertsona ereduagarriak zuzendu zuen "Modern Times" komedia soziala dastatuko dugu. Beste genero guztiz ezagun eta erakargarria **musikala** da: norik ez ditu gogoratzen "Cabaret" edo "Moulin Rouge", baina oraingo honetan beste bat gehiago aipatuko dugu "Singing in the rain" Gene Kelly-k 1952. urtean zuzendu zuen lan bikaina. 4

Getxoko Gaurik Laburrena

Uztailaren 5 eta 6ko gauak film laburrez jantzita agertuko dira, guztira **15 bat film**

Gaurik Laburrena izenburupean film laburrak protagonista izango diren gau biko jaialdia antolatu du Getxoko Kultur Etxeak. Uztailaren 5 eta 6an 22:00etan, errealizadore gazte edo berrien 15 film labur izango dira ikusgai Biotz Alai plazan (Algortan). Astelehenean erderazko filmen gaua izango da hauexek izango dira ikusi ahal diren lanak: *Las cinco y cinco* (Borja Perez) 6 min, *Fatal Frisbi* (Ruben Ontiveros) 5 min, *Carisma* (David Planell) 10 min, *Ecosistema* (Tinieblas Gonzalez) 9 min, *Mar de*

«Astelehenean film laburrak erderaz, eta martitzenean euskaraz»

Diamante (Alfonso Nogueroles) 9 min, *Final* (Jose Luis Montesinos) 18 min, *7:35 de la mañana* (Nacho Vigalondo) 8 min, *Las superamigas contra el profesor Vinilo* (Domingo Gonzalez) 15 min, *Lo que el ojo no ve* (Jose Braña) 15 min, eta *Profilaxis* (Daniel Sanchez Arevalo) 10 min. Martitzenean euskarazkoen txanda izango da, baina euskarazko laburren ekoizpena askoz txikiagoa denez, eta badirudi aurten oso gutxi sortu direla, hurrengo film biak bakarrik ziurtatu dituzte (UK zenbaki hau itxi aurretik):




Kartel iragarlea

Baina zu... al zara zu? Ez ni... (Alaitz Arenaza eta Maria Ibarretxe) 17 min, eta *Lepokoa*. m

Gaurik laburrena

- Non: Algortako Biotz Alai plaza
- Ordua: 22:00
- Uztailak 5, erderazko film laburrak
- Uztailak 6, euskarazko film laburrak
- Sarrera doan

Ez galdu > "Whale rider"



Niki Caro-k, Zelanda Berriko emakume zuzendariak, 2002. urtean zuzendu zuen bere bigarren film luzea: "Whale rider". Filma drama bat da, eta sentsibilitate eta emozioz beteriko istorio hungigarrria eta interesgarria garatzen du. Neskatilentzat eta neska gazteentzat interes berezia dauka pelikula honek, pantailaritzen diren film gehienetan hauek ez daukate-eta eredu hurbil eta egokirik. Baina Niki Caro-ek egin duen gidoiaren ("Whale Rider" eleberrian oinarriturikoa) eta zuzendu duen filmaren bidez, neska gazteek eredu azkar eta kementsua aurkituko dute protagonistarengan. Film bikain honek nazioarteko zenbait sari jaso ditu: "Independent Spirit Award" atzeritar filma hoberenarentzat, eta ikusleen sariak Sundance zinemaldian bai eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldian.



Ezkerretik eskuinera, Barbara Hendricks, J. McCoy eta Chano Dominguez

Jazzaldiak dauka orain lekukoa

Barbara Hendricks, Bruford, McCoy Tyner...


XXVIII. Jazzaldiak hartuko du Blues jaialdiak Portu Zaharrean utzitako lekukoa, eta jazzez jantziko dira Biotz Alai eta Getxo Antzokiko plazak (Algorta). Ekainaren 30etik uztailaren 4ra bitartean hamaika jazz taldek girotuko dute Getxo, hiru esparrutan banatuta: lehiaketako taldeek eta kantari ezagunek Biotz Alai plazan joko dute, Hirugarren Milurtekoaren baitan: Jose Alberto Medina Antzokiko plazan, eta jam session-ak Piper's Irish Pub-en egingo dira. Biotz Alai plazako kontzertuak 21:30ean hasiko dira, jam sessionak horiek bukatutakoan egingo dira, eta

Getxo Antzokikoak 19:30ean. Egun bakoitzeko artista ezagun batzuk hauek dira, hurrenez hurren: Bill Bruford's Earthworks, Brussels Jazz Orchestra eta Bert Joris, Chano Dominguez Trio, McCoy Tyner Trio, eta azken egunean, Barbara Hendricks eta Magnus Lindgren Quartet. Hirugarren Milurtekoaren baitan: Jose Alberto Medina Trio, Jon Urrutia Quartet, John Pinone, Solid!, eta Dolç Tab Jazz Project taldeen jarduna edukiko dugu. Kontzertu nagusiak izan ezik, gainontzeak doan dira.

Informazio gehiago: 94 431 03 10 / 92 84

diskoak

Trampin
Patti Smith
Columbia



New York-eko kazetari eta poeta honek musika mundua aldatu zuen 1975ean. Utzi ostean, 90. hamarkadaren erdialdean itzuli zen, baina ez zuen bere maila berreskuratu. Zelan lortu hori? Disko on bat eginez. Trampin begi onez entzuten da, eta abesti onak dauzka, baina argi geratzen zaigu ere Patti Smith-ek ez duela musika mundua berriro hankaz gora ipiniko.

28.000 puñaladas
Marea
Dro East West



28.000 puñaladas moduko diskoak beharrezkoak dira: salmentatan gora egiten duten bitartean, rock kaletarra ez dela desagertuko gogorazten digute. Gainera, disko honek Iruñeko taldea rock espainiarren lehenengo mailara igo da. Robe Iniestaren onespenez, jakina. Izan ere, ia derrigorrezkoa da Marea Extremoduro taldeagaz parekatzea.

Hutsa
Kudai
Ohuka



Metal industrialaren ezaugarri guztiak dituen diskoa plazaratu du 2002an sortu zen Kudai taldeak. Hain zuzen, Donostiako laukote gazteak musika gogorra egiten du, baina abestietan sarri nagusitzen diren melodiek ez ditu egiten dute gogortasun hori. Tebistak eta oro har komunikabideek "gugan duten eragin kaltegarria" islatzen saiatu dira Kudaiko kideak.

Diskoa > Bienvenue



Root System talde lapurtarrak bigarren diskoa kaleratu du: *Bienvenue*. 1999an jaio eta handik bi urtera plazaratu dute lehenengo diskoa:

Lord. 9 musikarik osatzen dute gaur egun Root System taldea: Le Krok kantari (SKUNK taldeako abeslari ohia), Cedric "Sir d'Ok" Ilhardoy baterian, Wilman baxuan, Xabi teklatueta, Waka gitarran, Djé perkusioetan, Battitte tronpetaz, Lamiman saxofoiaz eta Fred tronboiaz. Reggae, raggamuffin, dub, ska zein estilo latinoak duten abestien kutsua eta doinu afrikarren oihartzuna nahasten dira Root System taldearen azken disko honetan.

www.laguna-studios.com/root1.html

Diskoa > Lekuonaren omenez

lazko udan disko bat plazaratzeko asmotan zebilela, heriotzak bat-batean eraman zuen Julen Lekuona. Ez dok Amairu taldeko musikari eta abeslari izandako oartzuarrak ez zuen diskoa gauzatzeko denborarik eduki, baina bere familiak hartu du egitasmoa aurrera eramateko eronka, eta *Itsasoan urak handi dire* diskoa kalean da. Abesti zaharrek zein Lekuonak azken urteotan sortutako kanta berriek osatzen dute diskoa, eta Ez dok Amairu-ko taldekideek zein kantari gazteek jarri dute ahotza, besteak beste: Benito Lertxundi, Xabier Lete, Imanol, Alaitz eta Maider, J. Muguruza...

www.hirustarecords.com

esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Egunerokoa (XIX)

Nortasun kontuak (II)

Nortasuna. Hitz potolo horren atzean aurkitzen denak biziki kezkatuik dauka Kureishi.

Zerk definitzen du gizaki baten nortasuna? Arrazak, janzkerak, ideologiak...? Bizimodua aldatzearekin nahikoa da nortasun jakin batekin amaitzeko? Galdera horri erantzun posible bat bilatzeko helburuarekin idatzi zuen "El cuerpo" nobela laburra. Demagun gazte baten gorputzean bizitza berri bat, edo nahi izanez gero, geureari jarraipena emateko aukera eskaintzen digutela. Ataka horretan aurkitzen da kontakizuneko protagonista, 60 urteren bueltan dabilen idazle arrakastatsua, eta jakina, ezin ezetzik esan hain eskaintza tentagarriari. Izan ere, aspaldi oharatu zen gorputzak ez ziela adimenaren beharrei erantzuten. Idazle gisa oraindik zer esanik baduela uste du, baina artritisek ez dio bakerik ematen. Beraz, onartu egingo du aldaketa, eta egun batetik bestera Italiako futbol jokalarri baten antza duen gorputzean sarturik ikusiko du bere burua.

Idea, berez, ez da berria. Mary Shelleyk kezka berberak agertu zituen "Frankenstein" nobelan, eta Robert Louis Stevensonek ere, nahiz eta gorputz aldaketa materialik aipatu ez zuen, antzera jokatu zuen "The strange case of the doctor Jekyll and Mr. Hyde"-n. Eta literaturaren historia sakon arakatzeari ekingo bagenio, aipatuak baino lehenagokoak diren erreferentziak aurkituko genituzke. Hain zuzen, Kureishiren lanak zor handia du "Frankenstein"-ekin, baita Goethen "Fausto"-rekin ere (nortasun kontuez ari garela ahaztu ezin den erreferentzia). Aipatu lanetako pertsonaiek bezala, "El cuerpo"-ko protagonistak nahi du bizitza perfektua eskuratu, baina esperimenduak ez du uste bezalako emaitzarik izango... 4

Kontu xumeen **poetika**

Kirmen Uriberen **poemak gaztelaturik** kaleratu ditu Visor argitaletxeak

Hamahiru urte zeuzkan anaiak lehen poesia liburua oparitu zionean. Orduantxe ezin zuen pentsa opari horrek zenbateraino markatuko zuen bere ibilbidea. Txikitari, oso gogokoak zituen aitak eta osabek kontatzen zizkioten istorioak; gustatzen zitzaion pentsatzea noizbait berak ere antzeko pasadizoak edukiko zituela, entzuteko prest zegoenari oparituak izateko zain. Gaur egun poemak idazten ditu bizitzako kontu xumeen inguruan. Edozer eta edozein izan daiteke poema horietako protagonista, dela ebaki berria den belarraren usaina, dela sartu berria den maiatza, dela uretan zaudela oinen artean dabilzkizun anemonak... Kirmen Uribe



Argazkian, Kirmen Uribe

«Aurreko lanetako poemak bildu ditu Uribek argitalpenean»

(Ondarroa, 1970) badu dohain hori, gauza ñimiñoetan erreparatu eta jendeari haien garrantziak ohararazteko dohaina.

Azkenaldian batetik bestera dabil Uribe, "Zaharregia, txikiegia agian" ikuskizuna dela-eta. Mikel Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabalen laguntzarekin New Yorken estreinatu zuen lanak sekulako arrakasta lortu du gurean. Iragan urteko Du-

rangoko azokan esperientzia horretatik sorturiko disko-liburua aurkeztu zuten. Alabaina, bestelako kontuek bihurtu dute albiste poeta. Visor argitaletxearen eskutik, Ondarroakoak "Mientras tanto dame la mano" argitaratu du orain dela gutxi, gaztelaniar kaleratzen duen lehen poemategia. 2001ean Kritika saria jaso zuen "Bitartean heldu eskutik" liburutik harturiko poemak ez ezik, "Zaharregia, txikiegia agian" disko liburuan agerturiko beste hainbat biltzen du lanak. Itzulpenak Uribek berak, Gerardo Markuletak eta Ana Arregirik egin dituzte. m

liburuak



Eguzki beltzaren...
Alberto Ladrón Arana
Elkar

1939ko otsaila. Iparraldean babestuta dagoen gudari gazte bat espioi-lan misteriotsua egingo du bidaliko dute bere ugazabek, Parisen aurrea eta nazien Alemaniaren gero; berak jakin barik, agente espainiar bat orpoz orpo ibiliko zaio gelditu barik: espioi-eleberririk onenen ezaugarriak dauka liburua.



Lurterra da begiratu
Xabier Etxabe
Elkar

Aitona Jexux ardatz hartuta, kontatzearen lilura berritzen digu idazle zarauztarrak bere lehenengo liburu honetan. Gure artean arrasto sakona utzi duen mundua berriz eraiki du: XX. mendearen hasieran apustu, korrikalari, soinu-jotzaile eta erromeriek girotzen zuten Euskal Herri hura.

Hilabetekaria >

Denbora-pasetarako **Luma**

Euskarazko denbora-pasen aldizkari **bakarra:** hitz gezidunak, letra zopak, hieroglifikoak...

Luma da *euskaraz jolasteko eta berbakaz gozatzeko* denbora-pasen hilabetekaria. 2002ko urtarrilean plazaratu zen lehenengo aldiz, eta aurtengo urtarrilaz geroztik Komunikazio Biziagoa argitaletxea da aldizkaria argitaratzeko arduraduna, Argia aldizkaria argitaratzen duen berbera. Gaur egun, euskaraz argitaratzen den denbora-pasen aldizkari bakarra da. Lumako arduradunek jakinarazi diguten legez, urte asko dira Argia-k denbora-pasakaz harremana daukela, Zeruko Argia zenetik hain zuzen ere. Ainara Lasak dioskun moduan, "beti izan

«Euskaraz argitaratzen den denbora-pasen aldizkari bakarra da Luma»

dute denbora-pasek lekua Argian, eta gainera *Euskal Herrian argitaratu ziren lehen denbora-pasak, besteak beste, Zeruko Argian argitaratu ziren; eta orain normalizazioari begira eta eremu berriak hartzeko bidean, denbora-pasen lerroa lantzea erabaki dugu*.

Hilabetero 3 euroan saltzen da Luma kioskoetan, eta harpidetza bidez ere eskura daikete. Harpidedunek urtean Luma 6 euro merkeago eskuratuko dute: hilabetero 52 orrialde hitz-gurutatu, letra-zopa, logika joko, hitz gezidun, argazki jolas, hieroglifiko

denbora-pasa eta hitz-jokoan hilabetekaria

Luma

Bete zure datuak eta jaso ale 1 doan

Modua	Uribe Kostak
Asiako estatua	Arma erakustaldi
Aluminioa	Arrazola
Mutur	
Lehen eta azken	Bokala
Masarioa	Musika nota
Irria	Röntgen

Egin aproba hitz gezidun hauek osatuz eta parte hartu zozketan

Asteburua 2 laguntzeko Euskal Herriko txoko honetan

Harremanetarako: 943 37 15 45

eta abarrez gainezka. Horrez gain, Lumagaz batera ume eta gazteentzako gehigarria eskuratzen da: Lumatxo. Denbora-pasen aldizkari honek 3.000 ale ateratzen ditu, eta aurreko UKgaz batera banatu genuen Lumaren postala bidaliz gero, ale bat doan lortu daiteke. m

Euskaltel >
Canal Euskadi

Euskaltel telekomunikazio operadoreak telebista kate berri bat ipini du abian, Canal Euskadi izena daukana. Orain dela gutxi aireratzen hasi den Canal Euskadik Euskalteko kable bidezko telebista eskaintzaren 10. kanalean ekin dio bere programazioari. Saio gehienak erdaraz dira, baina euskarazko baten batzuk ere badira: musika saioen bat, umeentzako programa batzuk, marrazki bizidunak... Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban ikus daiteke Canal Euskadi, eta arduradunek aipatzen duten legez, telebista autonomikoa ei da, baina tokiko telebistek eskaintzen duten hurbiltasuna galdu barik. Oraingoz biztanleen %35era heltzen da, hau da, 700.000 bat ikuslerengana. Irailerako eguneroko albistegi zerbitzua iragarri dute, Euskalberri izendatuko ei dutena.

Informazio gehiago: www.canaleuskadi.tv



aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba
Arretzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Gebeo
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

uhinakFM

- Getxo Irratia 87.6
- Radio Euskadi 92.4
- Euskadi Gaztea 94.7
- Bilbo Hiria Irratia 96.0
- Tas-Tas Irratia 97.0
- eitb irratiak 100.1
- Bizkaia Irratia 102.6
- Koska Irratia 104.1
- Euskadi Irratia 104.4
- Pititako Irratia 107.0
- Gorliz Irratia 107.8

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estaziaba

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

irabazi UKrekin

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

× Tendinitis Esgintzeak
× Erreuma × Kiroleko

deitzen duenak
masaje bat debalde
irabaziko du!!

94 491 13 37
aldizkaria@euskalnet.net

Mendieta 2, SOPELE 17 67

Kafe Antzokia
Sarrerak
debalde!

02 asteazkena: GALATEA
ANTZERKI TALDEA 2 sarrera

04 ostirala: MAIO? KOPE
4 sarrera

10 ostiraka: FJORD
4 sarrera

94 49113 37

Kafe Antzokiak
antolatutako ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu.
UK-ra deitu eta kitto.

[sarean]

Nabigatu barik informatu

RSS formatuak ikaragarri errazten du hainbat komunikabideren azken berriak ezagutzeko

Internet sortu zenean (edo, ezagutu genuenean behintzat) nabigatzeari ekin genion denok. Webgune batetik bestera saltoka genbiltzan, ia beti noraezean. Gero, webguneak markadoreetan (Explorerrek 'favoritos' deritzonak) gordetzen hasi ginen. Eta horrela darraigu. Goizero, zer berri den jakin nahian hainbat webgune arakatu behar dugu: lauzpabost egunkari, aldizkariaren bat, agian weblogen bat... Eta, askotan, bisitatutakoek ez dituzte edukiak eguneratu, eta "bidaia" alferrik egin dugula pentsa dezakegu... benetan sistema aspergarria.

Hori konpontzera dator RSS. Sistema honen bidez, guk geure orde-nadorean dohaingo programa bat jartzen dugu (Windows-erako RSS Reader,

Linux-erako Straw eta MacOS X-erako netnewswire) eta bertan, gure gustuko webguneak gehituko ditugu. Une horretatik aurrera, programa horrek esango digu noiz diren berrikuntzak gune bakoitzean. Izenburu guztiak eroso-eroso leku beretik irakurri, eta, zer edo zer interesa bazaigu, estekari jarraitu eta aukeratu dugun berria irakurri ahal izango dugu.

Zenbait euskal webgune hasiak dira honelakoak eskaintzen, Luistxo Fernandez internet adituak bere orrialdean aditzera ematen duenez. Eta gehiago hasiko dira hemendik gutxira. Hauen berri jakiteko, sartu "Luistxoren blog eleanitza"-n. Benetan euskal webgune dotorea. m

<http://www.manterola.org/familia/luistxo/blog/es>

webgida

LA PETITE

>www.lapetiteclaudine.com

Emakumea izatea eta zenbait gauzez hitz egitea arraroa da oraindik. Badirudi zenbait gai emakumeentzat tabu izan behar direla. Zorionez, badira honelako koei aurre egiteko prest dauden emakume jatorrak. Ez galdu Lapetite-k eskainitakoak, zu ere bere webgunearen "adikto" bihurtuko zara hemendik gutxira.

MUSURIK BAI?

Sarean aurkitu ditugu > Denetarik



Ritxi Mendiguren > ESAITeko kidea

“Urteak aurrera doaz eta gure kirolariak beti beste kamiseta batzuekin”



Argazkian, Ritxi Mendiguren

Ritxi Mendigurenen bizitza oso lotuta dago kirolagaz. **Athleticeko jokalaria izan zen urte askoan, eta orain ESAITen (Euskal Selekzioen Aldeko Irtzi taldea) dabil buru-belarri. Mendiguren oñatiarra da jaiotzez, baina Algortan bizi da gaur egun; hain zuzen, elkarte Bizkaian sortu zen unetik dabil ESAITen beharrean. Berbaldi honetan, azken hileotan oihartzun handia daukan aldarrikapenez jardun dugu beragaz.**

—Modan dauzkagu Espainian *autonomietako selekzioak* esaten zaien horiek, Madrilgo parlamentuan egon diren mugimenduak direla eta. Zer espero duzue hortik?

—Ikusi beharko dugu aurrepausak ematen diren ala ez. Nahiz eta txikiak izan, aurrepausak aurrerapausuak dira, baina politikariek eta instituzioek askoz gehiago egin behar dute. Dena dela, nazioarteko kirol federazioak izate pribatuak dira, eta hortik ekin behar da gure ustez. Euskal Herriko

federazioen aldetik egin behar da ahalegina nazioarteko federazioetara jotzeko. Katalunian patinen gaineko hockeyarekin gertatutakoaren bidetik, hain zuzen.

—Hala ere, legeak hor daude, ezta?

—Bai. Baina hemen ere, orain dela sei urte-edo, legea onartu zen Legebiltzarrean eta horren garapena oso txikia izan da. Guk ere geure legea daukagu, eta konpetentzia daukagu kirol arloan. Lege horrekin aurrepausak eman ditzakete federazioek. Jakina, presio izugarriak egoten dira Frantzia eta

Espainiaren aldetik nazioarteko federazioetan Euskal Herriak parterik ez hartzeko. Baina saiatzen jarraitu behar da.

—Oro har, zein da euskal kirol federazioen jarrera zuen aldarrikapenari begira?

—Orain urtebete-edo galdetu egin genien, eta aldeko borondatea denek erakusten dute. Askotan batzuek besteei botatzen diete baloia, nik uste. Federazioetakoek politikarientz kontua dela esaten dute. Politikariek, berriz, ahaleginak egin behar direla, baina politikari. Nik badakit borondatea dagoela, baina urteak badoaz eta gure kirolariak beti

«Guk daukagun legearekin, federazioek aurrepausak eman ditzakete»

dabilta beste kamiseta batzuekin. Pausuek sakonagoak izan behar dute, eta borondatea benetako lan bihurtu behar da.

—Kirolariak zer eskatu ahal zaie?

—ESAITen askotan eduki dugu zalantza hori. Gehiago eskatu, aldarrikapenetik harago joan... Kirolariak beti egoten dira prest, zeozer antolatzen dugunean, agerpena egiteko, manifestua sinatzeko edo dena delakoa... Guk txalotu dugu eta txalotuko dugu edozein kirolari espainiako edo frantziako selekzioarekin jokatzeari uko egitea, baina hori norberaren borondatearen gauza da.

—Baina kirol batzuetan, futbol profesionalan esaterako, presio itzelak daude. Zuk badakizu zeozer horretaz...

—Hala da, bai. Kirolari profesional batek ez du bere lanbidea arriskuan jarriko gero benetako pausak emateko ez bada. Kirol batzuetan zigor handiak jaso ditzakete. Pausu hori emateko -eta futbolari batek emateak, adibidez, mugimendu handia eragingo luke-, kirolariek instituzioen eta federazioen babesa beharko lukete. m

Berangoko **Maria Begoña Izagirre (II)**

“Halantxe ixen da gure biximodu; ez du pentza sekule txarto bixi garela...”



Argazkian, Maria Begoña Izagirre

Aurreko UKn, Maria Begoña Izagirregaz egin genuen berbetaren zatitxu bat ekarri genizuen. Baina kontu gehiagoren inguruan ere egin genuen berba beragaz eta ez dugu zuei erakusteko aukera galdu gura izan. Hona hemen, beraz, beste istorio interesgarri batzuk.

—Ni naz horko baserriko (Gorrondatxe bidean). Bueno, horko nire ama da. Ni beste etze baten bixi nintzen, baia gero aitite ta amama in ziren zahar eta etor gintzezen ordun horra, ha etze saldu gendun. Zenbat urte ixengo dire, iguel hirurogei urte ingeru. Nik hirurogeita hamairu ein dodaz ointxe aprilen. Ta hor eon gintzezen harik eta... ya betireko. Ama ixen zan horko alaba.

—Alabaren etxean egoten zara orain, ezta?
—Gaixo nau hautzeaz ta humedadeaz. Ta orain dauz obratan, oin hautze itzela dau ta txarto para nintzen, txarto. Ta ahal dotenen paseon, ibilli, ta ezin dotenen, ba, atara hamaka kanpora ta egon han; negun, barrun. Hemen ederto nau gobernata baia neure etzen ez dot faltan ezer eta hemen bere

nau ondo baia etze gurot, hantxe egon.

—Hondartza paraje zeneukan, joaten zinen?

—Ke ba, pentza bez, playako gero etor da. Ni yon naz, nozonoz yon naz neure nebakaz baia yoten ziren eurek zera iten zaramilla edo deituteotzen, iketza txikerra. Urteteun asko, eta bueno, hori Azkorriko playa ixete zan montoik eta montoik; eta aurekaz yoten nintzen ni jolastuten, han ibilte nintzen baia ez holan oraingo modun, zeran, traje bañun edo hori, pentza bez. Honek gixonak bere, fraka zahar batzuk sartu ta yoten ziren uretara gudaiñegaz koisten. Ni txikia, ze hamar urte gehiau nik baño auki dauz gazteenak bere, eta hartu txikotan ta haraño; neskato bakarra ixen nintzen eta hiru mutil gero ixen

ziren. Halantxe ixen da gure biximodu; ez du pentza sekule txarto bixi garela, halan yaio ta halantxe... orain dekuz baten fregaplatok eta baten labadorak... horrek gauzak oraingo dire, gaur iminxu andra bat erropak garbituten.

“...orain dekuz baten fregaplatok eta baten labadorak... horrek gauzak oraingo dire, gaur iminxu andra bat erropak garbituten!”

—Non garbitzen zenuten arropa?

—Hemetik ez da egon urerik, hemen ure geuk ekar gendun etor gintzezenen. Baia hemen uren faltan, baldekaz hara beraño uren bille. Han dau etze handi bet ta han egon zan labadero bat ta hara yoten ziren andrak, koixu bañerak eta erropak ta garbituten. Gu ez gara yon ze ordun han egon gintzezen eta gero etor gintzezenarako ya herrin imiñi euren ure. Lehenengo ein gendune horitxe, argi ta ure imiñi, ze nire aitak esateun ze suten galdu euala zera bat, aitzo bat eta ezin topa, argi barik eta holango leihoak (txikiak) kristal barik ta hotza etor ez deiten saku zahar bat sartzeotzen han ta ilunetan; gauetan in sue ta han suen argiez afari in. Ez zan eoten kandelarik eta honek gauzak, biximodu triste da hori, eh? Nik ez dot ezetu baia entzunte dekot, hantxe salbaje modun ezer barik eta pentza berez besterik ixen behar daula, danak bardin bixi ziren lez.

—Eta dutxa hartzeko?

—Dutxa bat berez, nik ezetu dot tinako handi bet imiñi gortan ta guk ure euki du etzen ta gomeaz eron hara gortara baia ure hotzagaz, gazte gintzenen. Edo han labaderon ostabere, labadero handi bet ta ondo berotuten zanen eguzkiak, sartu hara ta han emon bañu batzuk. Ta hemen gauz ondiño. m

Esakere “Umen zentzune, etxen entzune”

Danak dakigu umek ze zabalik eta ze bizi aukiten dauden belarri, zelan entzuten dauden guzti, eta hatxe gero eurek zelan esaten dauden. Kontu da, baia, askotan jente nagosik agoa aukiten dogule lar zabal eta lar bizi, eta gitxi pentsata, gitxi medute botaten doguz berbak apur bet berotuten garanen... eta gero belu da damututeko, umen agoan gure berba motzak entzuten doguzenen. Onerako edo txarrerako, umek diñona, etxen entzuten daune da.

(Iñaki Gamindek baturiko esakera bat dozue hau. Beran “Urdulizeko berbak eta bizimodu” liburun topako dozue).

Gorka Vázquez

Gurberbake 42

ZELAN ESAN
Zelan erakutsi poztasune eta tristetasune

Testua: **Xabi Bilbao**

Lehelengo-lehelengo, akorda egingo gara apur bet aurreko Berbakeren aitetu genduzen esaldikez, ze ikusi egin gendun zelan erakutsi interesa, interes eza, esperantze eta bildurre, baia ez gendun auki lekurik adibide askorik emoteko. Hemen doaz, ba, horren adibide batzuk:

—Aurten *interesa deko* karrerek...!
—Bai, *ia* gure mutillek ondo *preparata doazen*, horri *amerikanuri sistu bet emoteko!*
—*Eztaiz ba, baia!* Nipere *esperantze dekot* gurek *zéozen ein daien*, baia *bildurre émoten dást* Amerikanuk...!
—*Indertsu hélduko bálestike* Igorretarra...! Edo *Usurbiltarra!*
—*Ezin dozue berba iñ béste zéozen gánera? Abrosíte* dekozue! *énei aguanta* ziókatz!
Kantsagárrik zer zare ba!

Zelan erakutsi “poztasune”

- Orain hillebete deku opor, **ze ondo!**
- **Grazik** ezatúzela ikusi undaltzáñak hori manióbre íten!
- Yánari lar ezteku,... **Eskérrak** ardaun nahie dékule / dékune!
- **Póztuten naz** selesiño demónentru kánpora lotu dala txapélketetik akabun: **Zélau lasaitasune!**

Zelan erakutsi disgustu eta “tristetasune”

- Gánera doako zezena! **Ai ama!**
- Eskure auki dau tántu eta gora bóta dau: **kaka zaharra!**
- Azúkere bóta beharren gatza bóta dozule? **Ederra in dozu!**
- Zélan! Pentsa dozu hori tatuaje gero kendu in léitela? **Kéba!** Oíñ **eztauz ze iñik!**
- Bisbalen abesti dúztik émoten dabiltez: **lástime da** éztékule bídeo hau grábateko!
- Ainarari bóta dotzezule email bet eta “Naiaratzu maitia” imiñi? Lasai mutil, **ze ingozu** (egingo dozu) **ba!**

I aki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345
Algorta

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

ALBEkumeak

Zalapartari galantak!

Zarata gustuko duzula? Eta oihuak ere bai? Leku egokira etorri zara orduan! Gobela ikastolako 5. mailako gaztetxoak horrelakoxeak baitira: biziak, alaiak, hitzontziak... azken batean, umeak izan behar diren bezalakoak.

Testua: Nahikari Ayo / Argazkia: A. Mentxaka

Esaten dute udaberriak odola bor-borka jartzen duela eta gure gorputzak eraldatu egiten direla. Bada, ematen du Gobela ikastolako 5. mailakoek urte osoa dutela udaberri. Mugimenduan dira beti, aukian eserita edukitzeko mirariak egin behar dira. Baina hori bai, jator-jatorrak dira!

Edozein bertso-sorta lantzerakoan, abesteko orduan beti hasten dira txalo josten, koreografiak asmatzen, gitarra jotzen, mundialak benetan! Askotan, abestu baino gehiago zarata ateratzea da euren helburua, bai eta lortu ere.

Nagi-nagi hasi ziren eta askotan haserretuta bukatzen genuen hori zela eta. Ikasgelan egiten ez zutena etxerako gertzen zen, eta inork ez ditu etxerako lanak



Gobela ikastolako 5. mailako gaztetxoak

maite. Beraz, pentsa zer-nolako motxila eramane behar izaten zuten etxera... Ikasturte bukaeran, badirudi berpiztu egin direla, batez ere Euskal Egunkak berpiztu zituen. Han aukera ona eduki zuten eurek

egindako bertsoak plazaratzeko eta, apiriletik aurrera, badirudi jarrera zertxobait aldatu dutela, eta hori eskertzekoa da, benetan.. Beraz, oker hasi zenak bukaera zoriontsua edukiko du. Eutsi goiari, neska-mutilok!

«Euskal Egunean aukera ona eduki zuten beraien bertsoak plazaratzeko»

ALBEko gaztetxoak



Beñat Vidal

TXIKITIK HANDIRA

Lehenengo puntua emanda

Behingoz karrera hasteko gutxi falta zaizu, ez nintzela helduko uste al zendun, aizu! Nahiz eta ikasketetan izan naizen maisu, orain nik daukadana da nahikoa izu.

Lau oinak emanda

Nire ikasketetan jari dut **afana**, urteotan egin dut sekulako **lana**; ondo gogoan dut behin amamak **esana**: «ikasi ta euko dozu bizi hontan **dana**».

Azken puntua emanda

Urte hauetan ikasketekin ibili naiz peto-peto, behintzat gerora begiratuta ni egon nadin ederto. Orain karrera bat hasiko dut duda txiki bat tarteko: **ikasten denak balio al du lan duin bat aurkitzeko?**




GETXOKO LEKU IZENAK
Liburua eta Mapa

salgai

GETXOKO LEKU IZENAK

Mikel Gorrotxategi Nieto
Sofia Suso Ordoa de Eribe

ARGITARATZAILEA :  **GETXOKO UDALA**
Euskara Zerbitzua



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Patata norvegiarra

Plater honek osagai nagusi bi ditu: patatak eta saltsa holandarra. Hasteko, patatak egingo ditugu. Zelan? Labean sartu patatak *albal*-ez inguraturik, su gogorrean, ordu betez edo. Bestetik saltsa holandarra prestatuko dugu. *Baño marian* jarritako ontzi batean lau arrautz gorringo barila batekin ondo irabiatu hamar minutuz edo. Limoi baten zuku, gatza eta pipermin hautsa gehitu. Bestetik, ipini gurina sutan urtu arte. Gorringoa irabiatuz loditu dugunean, gehitu gurin urtua apurka apurka eta irabiatzen jarraitu saltsa loditsu bat lortu arte. Lehen egin ditugun patatak erdibitu, eta barrua egindako saltsarekin eta izokin ketu zatiekin ondo nahastu lapiko batean. Gero patata erdiak masa honekin atzera bete eta labean gratinatu. Labetik atera patata erdiak eta gaina kabiar edo ganbekin jantzi. On egin! ^m

osagaiak (hiru lagunentzat)

- biru patata handi • lau arrautz gorringo • gurina • limoi bat • izokin ketua •
- gatza • pipermin zuria • kabiar apur bat •



itsaso arana / jolastoki-koa

Udarako

ardoak eta beste edari batzuk

Uda, eta berarekin batera beroa eta hezetasuna heltzen direnean, jeneralean atseginagoak egiten zaizkigu ardo freskoak eta arinagoak. Uda kanpoan pasatzeko asmoa baldin badugu, komenigarria eta gainera ohitura ona ere bada, bertako edariak probatzea. Herralde guztiek dute euren edari freskoa. Esaterako, Asturiasen sagardoa; gurean txakolina; Andaluzian, *manzanilla*, *finoa* edota *barbadillo*; Galizian, *albariño* edo *ribeiro*, eta abar. Zerrenda amaigabea da. Esaera zaharrak dioenez, gorostian gorosti eta Donostian Donosti.

Bestetik, kaba, berez hotza denez, oso erraz edaten da; udan, gainera, alaiagarria ere bada.

Ardo beltza edateari uzteko asmorik ez dutenek edozein jatorri izendapeneko urteko ardo edan dezakete, apur bat fresko edan daiteke eta. Kriantzak ez dira astunak eta edatera gonbidatzen dute.

Jan aurretik, hau da, aperitibo moduan, apur bat ahaztuta dauden ohizko sifoi ardo edo *vermoutha* har daitezke, gure ahasabaiak beti eskertuko ditu.

Hala ere, beroari aurre egiteko onena, norberari on egiten dizkioten edariak hartzea da beti.

Neurriz edan eta uda on! ^m



Itxas-bide taberna

freskagarriak eta pintxoak itsasoari begira



Argazkian Peio Gomez, Gaizka Gallastegiarekin batera tabernaren arduraduna dena

Ereagako kaian dagoen taberna da Itxasbide. Askorentzat taberna ezaguna izango da, izan ere, hogeitun baina gehiago daramate Portu Zaharreko arratsaldeak alaitzen. Gaizka Gallastegi eta Peio Gomez dira tabernako arduradunak.

Pintxoak, otarteko txikiak, sandwichak, kroketak eta abar dasta daitezke bertan. Eta horiez gain, etxeko berezitasuna diren tortila bero eta egin berriak. Sukaldari behar hauetan Nekane, Rakel eta Marivi dabilta.

Asteakubetan biltzen da jende gehien, izan ere, eguerdian zein arratsalde-

an (gaueko 23:00ak inguruan ixten dute) freskagarri eta mokadutxu bat hartzeko leku atsegina da; beti ere, gazte giroan. Asteko egun hauetan barra zabal-zabala atontzen dute, bertaratu diren paseatzaileentzako pintxo landu ugarietz ederto hornitua.

Horrez gain, egun eguzkitsuetan, Gaizkak esaten duen legez, *"tabernak daukan terraza naturalaz goza daiteke"*; Ereagako kaia bera, alegia. ^m

ITXASBIDE TABERNA
Ereagako kai 2 Portu Zaharra
Telefona: 94 491 19 87

Asador



- ¥ Zabalik egunero
- ¥ Eguneroko menuak
- ¥ Enpresa menuak
- ¥ Menuak norberaren gustura
- ¥ Egunero karta berezia
- ¥ Gaez dastatzeko menua astelehenetik-ostegunera
- ¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

KONTXI ZUÑUBISKAR URDAITEGIXA


Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 - T.F.: 94 491 06 54
ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



ITXASGANE
prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñaze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREEA T.: 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p>URA t</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) San Joaneko sutan ez erretzeko meritu nahikorik egin al duzu? Bai? Ba orduan, ongi pasa festak. Hala ere, erre gura ez baduzu, sutara ez hurbildu, badaezpada ere; hala jokatuz gero, salbu egongo zara.</p>	<p>OTSOA t</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Hasieratik esan zenuen jarrera baikorra izango zenuela, baina denboraren poderioz, bestelakoa daukazu. Zure nortasun bikoitzak halakoak egiten ditu. Zelan moldatzen zara? Ez naiz harritzen; hain da eroso izatera bi izatea.</p>	<p>ADARRA t</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Ordu gehiegi telebistaren aurrean egoteak ez du ezer onik ekartzen; akaso, tonto aurpegia eragitea. Berreskuratu al du irria zeure bihotzak, <i>Adarra?</i> Gauza berari buelta gehiegi emateak ez ditu irtenbiderik ekarriko.</p>
<p>AITZURRA t</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Badakit ez zaudela txantxa askori aurre egiteko, baina gaur ere ohetik jaiki beharko duzu, ezta? Erreko ekonomia zaindu behar dela ez al zizun azaldu amak? Orain banketxera joan behar, azalpenak ematera serio demonio.</p>	<p>HOSTOA t</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Dantzan txoria baino arinagoa zarena diote, baina aspaldian ez dituzu erakutsi zeure dohain horiek. Herriko festak hasi direla-eta, lanera ez zoazela? Gaztea izatea gauza handia dela diote gazte ez direnek.</p>	<p>EGUZKIA t</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Marmarrea ibili behar al duzu jai giroan ere? Atsedean apur bat hartu, eta gozatuko duzu. Gainera, aldarrea edeki aldatzeko badituzu arrazoiak, azterketak amaitu dituzu-eta. Gutxi iruduzen al zaizu?</p>
<p>GARIA t</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Dagoeneko zenbat aldiz joan zara hondartzara? Erabili al duzu krema azala ez erretzeko? Gehiagotan hartuko al duzu bainua?... Zorrotza izatea gustatzen zaizu, Garia, baina batzuetan ez duzu adimen nahikorik zorrotzasunari eusteko.</p>	<p>LASTOA t</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Basoen eta mendien ederki moldatzen zara, baina taberna zuloetan ere primeran zabilta. Erretzeari utziko zeniola agindu zenuen, eta ez duzu bete hitza. Egoera berriro aztertu beharko zenuke, <i>Lastoa</i>.</p>	<p>IRATZEA t</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Oporrak laster hartuko dituzula kontuan izanda, aurpegi goibel hori alaitzeko badaukazu arrazoirik. Behar aspergarriak benetan dira aspergarri, baina bestelakoak ere egin ohi dituzu noizean behin, ezta?</p>
<p>META t</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Umorezko filmak atsegin dituzu; hala ere, azkenaldi honetan halako filmak zeure etxean bertan daukazu. Amaren aholkuak jarraitzeak ez ditu gauza txarririk ekarriko. Ez al duzu hori ikasi oraindik, <i>Meta?</i> Bada garaia.</p>	<p>HAZIA t</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Erantzunak zeure barnean daude; aska itzazu behingoz, zoriona emateko. Hobeto berba egiten ikasi beharko zenuke, bereziki telefonoz. Beste egun arraro batzuk, azkenaldian bizi duzun surrealismo denboraldirako.</p>	<p>NEGUA t</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Abiadura bizian gidatzeagatik gertatzen diren gauza larriak entzun, eta zuk ezin balazta sakatu... Txorakeria ugari esaten zabilta azken egunotan, eta laster nazkatuko dira zutaz.</p>



mungia
OKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATU

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar, zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortziritako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

Soluzioak

V	A	I	V	A	R	H	O	Z		
O	W	L	E	T	P	A	I	E	P	
D										
A	R	I	A	R	A	L	Z	O		
A	U	A	R	A	L	Z	I	K		
S										
O										
N	E	T	R	E	S	A	R	A		
A	N	A	K	O	L	A	G	I		
N	A	G	L	A	B	I	A	N		

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Itzaropen handia piztu du bere zaleengan
- Oso ondo moldatzen da pedalei eragiten
- Marea laranjaren kapitaina da

> Aurrekoaren erantzuna: Rigoberta Menchu
> Irabazlea: **Maitane Urrutikoetxea (Leioa) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Gardoki Jatetxea



Mendieta kalea 47

Sopela

Telf: erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita



JOAQUIN ATXAK UTTZITAKO ARGAZKIA

Areetak "Acción Católica" futbol taldea, 1947

Ibaiendon, Arenas futbol taldearen zelaian, eginda dago goiko argazkia, Areetan auzoko taldeen artean jokatzen zen txapelketa batean. Accion Católica-ko lagunak azaltzen dira goian. Mesedeetako Ama elizako gazte hauek gaur egun Andres Isasi musika eskola dagoen leku berean zeukaten topagunea. Han elkartzen ziren, abadeen zaintzapean, billarrean jokatzeke, Areetako jaiak antolatzeke e.a. m

Goian: Joaquin Atxa, Lauzirika (Sarasua), Moises Perez, Pedro Sanchez, Carmelo Isasi, Txema Zarraga, Jose Miguel de la Rica (Bele). Luis Escala, Angel Blanco.
Makurturik: Ignacio Zalbidea, Urkijo, Juan Mari Ezkurdia, Carlos Egiraun.



gure posta elektronikoko berria

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

AFRICA BAETA > kazetaria

“Bush-ek mespretxu handia sorrarazten dit”



ETB

Definitu ezazu zeure burua berba bitan bakarrik.

Irekia, baina aldi berean lotsatia ere.

Zein animaliaz zatoz bat? Inurriagaz.

Zein liburu gustatuko litzazuke idaztea?

Etxe Zuriaren sekretuen gaineko edozein ikerlan. Hor etengabe “egosten” dena espiatzea asko gustatuko litzaidake, gero jendaurrean salatzeko.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Begirune handia ematen didaten pertsonaia asko daude... Bat aipatuko dut guztiz kontrakoarengatik, pizten didan mespretxu handiarengatik: Bush.

Zure jakirik gogokoena. Edozein entsalada mota.

Aitortu dezakezun bizio bat. Bruce Springsteen.

Oporretara joateko lekurik aproposena. Hondartza bakarti bat.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Itxurakeria.

Zer janzen duzu lo egiteko? Topatzen dudan pijamarik erosoena.

Ezin zaitezke bizi... Familia barik. Egiten dudan guztiaren eragilea da.

Zer gordetzen duzu sakeletan?

Astegunetan ikusi beharko zenituzke, Mary Poppins-en poltsa dirudite: alabaren ilerako gomak, puxtarriak, kromoak, marrazkiak...

Zer berri gustatuko litzazuke entzutea albistegi batean?

Mirari ulertezin bati esker, inork ez duela sufritzen munduan.

Ohitura txarren bat... Irribarrea inoiz ez galtzen saiatzea.

...Eta sineskeriaren bat.

Ez dut inoiz albiste onik kontatzen erabat ziur egon arte, hondatu ez dadin.

Zertan gustatuko litzazuke haragitzea?

Ustekabe bat izatea nahiago dut, eta datorkidana onartu.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?

Teleberrira ez naizela ailegatzen, berandu helarazten nauten oztupoak agertzen dira. Larritzekoa da.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?

Orain dela gutxi, eta nahiago dut ez gogoratzea.


Zure azken erokeria.

Enborrak jasotzea errepedean gauetz Israelen. Egunen batean esango dizut zertarako... m

LABURREAN— Begitarte ilunagaz dabilen jendea ez ei du jasaten. Nabarmentzea ere ez zaio gustatzen, “*baina oso ekina naiz egiten dudan guztian*”. Hamasei urte zituenetik Bruce Springsteen entzuten du, “*eta oraindik harri eta zur uzten jarraitzen nau*”. Africa Baetak (Bartzelona, 1969) nazioarteko politika du oso gogoko, eta seme-alabak eduki aurretik, munduan barrena bidaiatzen saiatu zen. Ezkondua eta “*haur bi eta erdiren ama, hirugarrenaren zain nago-eta*”, Nafarroako Unibertsitatean egin zituen kazetaritza ikasketak. Amaitu ostean, Iruñeako herri-telebistan (gaur egungo Canal 4 Navarra dena) hasi zen beharrean, eta han bost urte eman zituen. Gero, ETBko casting batean parte hartu zuen, eta zenbait proba gainditu ostean, Teleberria aurkezteko aukeratu zuten. Hortxe bertan ikus dezakegu Africa asteburuero, munduaren gorabeheren berri ematen.

INGELESEK

ingelesez irakurtzen dituzte eguneko berriak



ESPAINOLEK

espainolez irakurtzen dituzte eguneko berriak



FRANTSESEK

frantsesez irakurtzen dituzte eguneko berriak



EUSKALDUNOK ERE EUSKARAZ IRAKURTZEN DITUGU EGUNEKO BERRIAK



Egin zaitez harpidedun:
943 30 43 45
harpidetza@berria.info

HARPIDEDUNEN ABANTAILAK

1. Kioskoko prezioa baino %9 merkeago
2. Banaketa doan: etxean, lantokian...
3. Harpidedunaren Kioskoan zozketak eta opariak
4. Promozioetan abantailak